

uk

250. zenbakia / 2014ko apirilaren 8a



URTERO
20€

Harpidetu
eta jaso UK
zure etxean,
hamabostero.
Urtero 20 euro.

Urtero UK aldizkariaren 20 zenbaki.
Urtero Uribe Kostan gertatzen denaren berri.
Urtero eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean.
Urtero argazki zahar eta barriak.
Urtero zure proiektuak lau haizetara.
Urtero 20 euro.



neuk ere gura dot

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga
ERREDAKZIOA: Zuberioa Iturburu, Julen Nafarrate,
Iker Rincon, Irantzu Sagaminaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Amando Llamas, K.Olete, Amaia Arriaga, Aritz Bergara, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte
MARRAZKILARIA: Laurita Siles
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

TRATU TXARRREN BIKTIKAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111	HEGOKUPAZ, HEZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA Hezkuntza Politikako Baitaratuak DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA Y DE ACCIONES DE POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Non zer

- 4. PLAZA. K.olate
- 5. IRUDIA. Gorrondatxen hildako izurdea.
- 6. FACEGUK. Eraso matxistei emoten zaizkien erantzunak egokiak dira?
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Kortñie baseria (Getxo),1973.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 11. ERRETRATUA. Karla Llanos Etxabe.
- 12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
- 25. AGENDA.

SAKONEAN

- 26. ALBUMA. Gure Esku Dago dinamika Uribe Kostan.
- 28. ARGAZKIA. Titan garabia.
- 30. BERBETAN. Ainhoa Malexetxebarria Unzetabarrenetxea.
- 34. FOTOGRAFIA. Lander Alvarez, G. Martinez de la Hidalga, S. Gonzalez eta K. Karakuel.
- 40. SAKONEAN. Berangok kostalderik izan du? Galdu zuen?

KULTURA ETA AISIA

- 42. ZINEMA. Bilboko Hileko Dokumentala zinema-eskaintza.
- 43. MUSIKA. Getxoko Jazzaldiko talde-lehiaketako finalistak.
- 44. LIBURUAK. Leioako Ni gazte nintzenean... lehiaketa.
- 45. KIROLAK. Pakea Getxo Bela Eskolaren aurkezpena.
- 46. MUNDUKATUAK. Aitor Villanueva.
- 47. ZIENTZIA. Bidaiak denboran zehar (1).

AMAITZEKO

- 49. PINTXOTAN. Txipiroiak amerkar saltsagaz.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Laurita Siles.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. Galea futbol taldea, 1973 inguru.
- 54. AITORMENAK. Matxalen Ziarsolo Areitioaurtena.

Azala: Samien herria ezagutu duten bidaariak

www.ukaldizkaria.biz



30 Ainhoa Malexetxebarria
Berbetan
Haize Berria-ko (genero indarkeria bizi izan duten emakumeen kolekti-boa) kide da arkitekto goliztarra.



11 Karla Llanos
54 Matxalen Ziarsolo

aldizkaria etxean jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
Kalea/zenb..... Herria.....
e-mail.....
Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro
☐ beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)
□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

Antzuola

Non?, galdetu du harriduraz bikote gazte-ak Ekainaren 8an erabakitzeko eskubidearen alde dagozkien metroak Antzuolan izango direla entzutean; lehenengo aldia da, nonbait, izena aditzen dutela edo, behintzat, erreparatzen diotela, eta antzik ere ez diote ematen non demonio egon daitekeen herri edo dena delako hori; tira, Antzuolan Barrika edo Urduliz aipatuko bagenu bezalatsu. Bada, gure biluztasun geografiko-kulturala apur bat estaltze aldera, hona hemen sarean harrapatutako Antzuolari buruzko puska batzuk.

Antzuola Debagoiena eskualde gipuzkoarreko udalerri bat da; 27,9 km2ko azalera du eta Bergaratik Zumarragarako bidean dago, Deskarga mendatearen magalean; 2.200 biztanle inguru ditu; garai batean nekazaritza eta abeltzaintza ziren jarduera ekonomiko nagusiak; gaur egun, batik bat joan den mendeko 60 eta 70ko hamarraldietan izandako hazkundearen ondoren, industria da herriko ekonomiaren ardatza.

Lau antzuolarretik hiru euskaldunak dira; bizkaiera ere deitzen dugun mendealdeko euskararen mugan dago Antzuola, Deskargako beste isurialdea gipuzkeraren eremu baita.

Jai ikusgarria ospatzen dute urtero uztailaren hirugarren larunbatean: Mairuaren Alardea. Alardeak, batetik, foruak erauzi aurretik urtero egin ohi zen arma eta armagizonen errebista dakar gogora; bestetik, 920 urtean Junkarian (Nafarroa) Kordobako emirraren aurkako batailan izan ziren herritarren arrakasta oroitzen du, buruzagi mairua errendiarazi zutenekoa antzeztuz, musika, dantza, bertso, eta eskopeta zein kanoi hots artean. Zehaztasun historikoak gorabehera –Abdelraman IIIk kristauen ostea txikitu zuela diote historialariek– *“herri izatearen harrotasuna”* adierazten du tradizio honek (Antzuolako Udalaren webgunetik).



Antzuolarrek ez dute, baina, tradizioa argudiatu jokabide onartezinei eusteko, eta egungo balio eta ikuspegira egokitzen joan dira jaia: emakumeak sartu dira, euskara darabilte aurreko gaztelaniaren ordez, buruzagi mairuarekiko erdeinuzko jokabidea –turbantea erantzi eta zapaltzera behartzen zuten, besteak beste– zuzendu da, eta bi buruzagiak, antzuolarrena eta mairuena, parez pare

eta elkarrekiko errespetuz azaltzen dira. Antzuolarren buruzagiaren azken berbekin bukatuko dut, hain zuzen ere, Antzuolari buruzko azalpentxoa, zuzen islatzen dutelakoan Ekainaren 8an eskutik helduta bertan bilduko garen Uribe Kostako herritarrok ere pentsatzen duguna: *“guk pe gure herrixan izaeria eta nortasuna defendiko dogu,... eta zin itten dotsut, zuena eztogula zapalduko”*. ◌

gu geu

250. UK!

Zelan ospatu zenbaki borobila?

Jai har genezake! Ez ba, zerbait bereziagoa izan beharko luke...

Argazki bidez? Aspaldi, herenegun, atzo, gaur, bihar, etzi... Halakoak hamasbotero gurean...

Xapain, cava, patxaran, txakolin, sagardo, garagardo, kalimotxo, freskagarri, edo irabiaki...

Ur gehiagorik ez! Alkoholdun ala alkohol bako, baina izan dadila etxeko zukua!

Itsaski-jana, bi kiloko txuleta, opil goxoak, tarta, pastela... Zeingura, baina izan dadila euskal- !

Ez dugu borobiltasun hau ospatuko! Edo:

Aldizkariko lau ertzak zabaldu, eta euskaldun zein euskaltzale sukaldari finakaz batu gara.

Uribe Kostarako komunikazio-menuak, osagai barri bi izango ditu; hirukoa orduan...

Sakon hartu arnasa, sutetik usain goxoa dator...

Xuabe-xuabe, zure belarrira irakurle, goxo-goxo, lerroz lerro, zure begietara, eta sakon-sakon...

Uribe Kostako egunerokotasuna kontatuko dizugu...

Zein zaporeko koktel edo jaki urtengo dan, laster jakingo duzue...

UK-ko lantaldea



AZKORRI (GETXO), 2014KO MARTXOAREN 20A

Odola zeriola / Aurreko batean [Sakonean]-en kontatu genizun gure kostaldetik nahiko hur, sarri, izurdeak ikusteko aukera dagoela; eta a zer bizipoza halakoetan! Ostera, zoritxarrez, ez da lehenengo biderra, tamalez ezta azkena ere, Uribe Kostako hondartza eta labarrak halako animalien hilerri direna. Bihotza uzkurtzen zaigu orduan... Akituta, zaurituta, ahotik odola zeriola, hiltzeko lur hartu zuen Gorrondatxe hondartzan irudiko izurdeak, itsasoko ur bizi, harro eta askeetatik kanpo... Babes zibilekoek non eta zelan “lur emon” zioten ez dakigu; uretatik urrunegi ziurrenik. ◌ / Argazkia: Ibon Uribiarte

Auzokideen iritzia jakin gura duzu?
Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera
umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak...
Idatzi galdera **gure facebook**-en
eta zeure partez luzatuko dugu!

Eraso matxistak emoten direnean egokiak dira emoten diren erantzunak?



Leioa

Jennifer Gomez

> langabea

Erantzunaren arabera. Uste dut badagoela erantzun on bat jendearen alde-tik, informazioa ugaria da, eta kaltetuta-ko emakumeentzako laguntza eskain-tzen diren telefonoak eta elkarteak dau-de. Hala ere, jendearen kontzientziakoa garrantzitsuena da, eskoletan erantzun handiagoa egon beharko luke.



Algorta

Eneko Garcia

> tabernaria

Komunikabideetan sarritan agertzen dira genero indarkeriarekin lotutako al-bisteak, baina gizartean beharrezkoa da sakontzea egunerokotasunean bizi ditu-gun jarreretan, sexismoa gertatu ez da-din. Horietan sakontzen badugu eta ja-rrrera horiek identifikatzen baditugu, ego-era aldatzeko gai izan gaitezke.



Algorta

Lohitzune Rodriguez

> tabernaria

Ez dago erantzun bat oso deigarria dena. Emakumeen Mundu Martxa plata-formak planteatutako protokolo bat da-go, hau da, jazoeratik 72 ordutara kont-zentrazio bat egitea; baina uste dut oso jende gutxik parte hartzen duela horie-tan. Instituzioetan asko hitz egiten da horretaz, baina ez dute ezer ere egiten.



Leioa

Ustaritz Olabarrieta

> ikaslea

Gizarteak ez du erantzun egokia e-maten. Gaur egungo gizarteak paso egi-ten du horretaz, bakarrik parte batek erantzuten du. Norbera ukitzen badute bai irtengo da kalera, baina bestela ez. Instituzioek ez diote ematen behar bes-teko garrantzia. Zerbait egingo balute, gauzak ezberdinak izango lirarteke.



Leioa

Mikel Martinez

> udal langilea

Leku guztietan irakur ditzakegu kriti-kak, horiek soberan justifikatuta daude, baina agian norbanako legez zer egin dezakegun hausnartu beharko genuke, horiek guztiak konpontzeko eta berriro errepikatu ez daitezen. Berdintasuna be-netan efektiboa izateko pertsona guztion artean zer edo zer egin behar dugu.



Leioa

Jorge Cambeiro

> tabernaria

Hurbileko kasuak ez direnean jendea nahiko "pasota" da. Beti ikusten dugu emakume bat eraso egin dutela ez dakit non, eta familiarra edo laguna ez bada, paso egiten dugu. Instituzioek agian apur bat gehiago mugitzen dira jendau-rrean, baina ezer gutxi gehiago.



GETXO UDAL LIBURUTEGIA



ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / KORTIÑE BASERRIA (GETXO), 1973

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > etxera buelta



Arriluze, 2014ko otsaila

Testua: **Maialen Markaida Santamaria**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1
Tenerifeko oporraldia zoritxarrez zait akabo, hegazkinei diedan fobia gainditu beharrean nago. Ai! Bat-batean turbulentziekin hau mugitu da arraro. Gerrikoaren argiak gorri denbora lar du igaro, eta ito arte estutu arren ez nago seguruago.

2
Bueno, hobe dut lasai mantendu irten nahi badut bizirik. Marrazki horiek ikusi ditut larrialdi plana badakit! Txirrista hori handi batetik egin behar dela irrist. Inor baino lehen aterako naiz atzean dudan atetik, garraio astun hau paperezko abioi bihurtu aurretik.

3
Baina altxatu ta azafatak begiratu nau hain txarto, momentu batez sentiarazi nauela ganorabako. Ondoko batek esan dit "lasai, ez zaigu faltatzen asko" la izan ditut ordu erdian hiru atake kardiako. Azkenik lurra zapaldu dugu ohartu naizenerako.

* Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidai egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti! uk@aldizkaria.biz

berbaldiak > bertsolaritza Uribe Kostan



Fredi Paia izango da hizlari

Uribe Kostako Mankomunitate Zerbitzuak jakinarazi duenez, Uribe Kostako bertsolaritzaren gaineko berbaldiak antolatutuzte Gorlizen, Urdulizen eta Sopelan. Lehenengo hitzordua daborduko pasa bada ere, aukera baduzu oraindino, hurrengo zitak ondorengo hauek dira: hilaren 24an, eguena, Urdulizko kultur etxean arrastiko 20:00etan izango da hitzaldia, eta hurrengo hilean, maiatzaren

8an, eguena bere, Sopelan, Kurtzio kultur etxean 20:00etan. Fredi Paia izango da hizlari; izan ere, akorduan izan, orain urtebete eskas Algortako bertsolariak *Uribe Kostako Bertsolaritza (1900-1980)* liburua argitaratu zuela, Labayrugaz alkarlanean. Horrenbestez, hor jasotako eskualdeko hango zein hemengo bertso-(h)istorioak ondo ezagutzen dituen hizlariagaz jarduteko aukera egongo da. ○

lehiaketa > gazteen sormena bultzatzeko asmoz

Irudimena lehiaketaren IV. ekitaldia abiatu dute Azkue Fundazioak eta Euskal Kultur Erakundeak. Lehiaketaren helburua “gazteen artean euskal kulturaren inguruko sormena bultzatzea da, literaturan, grafismoan eta soinu sorkuntzan”. Antolatzaileek azaldu dutenez, “Proposatzen diren soinuetan oinarrituta, parte hartzaileek lan berri bat sortu beharko dute hiru kategoriaren batean: soinu berri bat sortu,

idatziz testua sortu, edo irudia sortu. Edozein formatu eta lan mota onartzen da, eta parte hartzaileek askatasun osoz sortzeko aukera izango dute”. Bederatzi soinu proposatu dituzte, soinumapa.net-etik hartutakoak dira eta Creative Commons lizentzia dute. Lanak maiatzaren 16ra arte bidali ahalko dira; kategoria bakoitzeko bina sari emongo dituzte. ○

Info+: irudimena.com



Maiatzaren 16an amaituko da izen-emote epea

asteburupasa > irrien lagunakaz, Zerainen

Bapiruke asteburua antolatu du Getxoko Bizarra Lepoan euskara-alkarteak. Maiatzaren 17-18ko aste akabua Irrien Lagunek Zerainen (Gipuzkoa) duten aterpetxean pasatzeko eta bertan antolatzen dituzten hamaika koloretako ekitaldiakaz gozatzeko aukera baliatu gura duenak izena emon beharko du hilaren 30a baino lehen. 5-7 urteko ume euskaldunei begirako ekimena da, Bizarra Lepoaneko

bazkide direnek 40 euro ordaindu beharko dute; gainontzekoek 60 euro, eta Getxon gitxieneko errenta jasotzen dutenek 20 euro. Azaldu dutenez, “Bankuko abonarearekin (Euskadiko Kutxa 3035 0108 06 1081032766) eta Osakidetza txartelaren kopiarekin bulegora etorri eta izen-emate orria bete”. Horren albotik, arin ibili, leku mugatuak daude-eta. ○

Info+: 944 910 387 / www.bizarralepoan.org



Izen-emotea: apirilaren 30era arte

saiazgetaria
HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa

...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

Emaiozu euskara

Familia bidezko euskararen jarraipena bultzatzeko kanpaina

Zure seme-alabak euskara osasuntsu eta aberatsean hazi daitezen, aditu guztiak bat datoz esatean familia dela haurrak behar dituen elikagaiak ondoen eskaintzen dizkion giroa

euskaraz hazi eta bizi dadin

<http://www.getxo.net/euskara>

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA GARA KULTURAREN ERAGILEA DEPARTAMENTO DE CULTURA Y SERVICIOS DE CULTURA

EUSKARA BIZI

KALTEA BIZI ERATZ

Getxo



[erretratu]

“Iraganak gaur egun gertatzen diren egoera asko ulertzen laguntzen digu”

Karla Llanos Etxabe > Getxoko memoria saretzen

Zertarako erabili zen Arrigunagako skate-park alboko gotorlekua? Eta malakateak? Eta...? Txikitatik, horrelako galderak izan ditu buruan Karla Llanos getxoztarrak. Inguruarekiko jakinmin asegaizta. Kuriositatea. Hori dela-eta, 2011. urtean *Memorias de Getxo* bloga sortu zuen (<http://getxosarri.blogspot.com>), Getxoko aspaldiko kontuez berba egiteko, argazki zaharrak erakusteko... “Urte biau astelehenetik barikura arte artikululu bat idatzi dut egunero”. Llanos getxoztar peto-petoa da, “Areetako eskoletako plazan jaioa”, eta beti izan du teknologia barriekiko interesa: “Nahiko pirata naiz, ordenagailuetan saltseatzea gustuko dut”. Baina bere interes nagusia, Getxoko historia, eta batik bat, istorioak dira: “Iraganak gaur egun gertatzen diren egoera asko ulertzen laguntzen digu. Baina memoria hori jaso behar da, bestela denboragaz galduko delako”. Beraz, jendeak elkarbanatzen badu, bera gustura! “Nik nire etxean gordetzeak ez du ezertarako balio”. Argazkiak jartzeaz gain, elkarrizketak ere egiten ditu: “Batzuk oso bereziak dira, Miren Larrearena, adibidez. Emakume harrigarria da”. Llanosentzat, ez da erraza informazio hori guztia batzea, baina... “niretzat ez da lana. Lana bihurtzen den egunean utziko dut, nahikoa lan egin dut jada bizitzan!”. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

Bizikletei bidea zabalduz

Zortzi kilometro luzatuko da **bidegorri-sarea**, 2012-15eko Bidegorrien **Planean jaso** moduan; **lanak udabarrian** bertan **egingo** dira eta herriko **bederatzi** gunetan **garatuko dira**

Gaur egungo 17 kilometroei beste zortzi gehituko zaizkio laster: 25 kilometro bidegorri izango dute txirrindulariek Getxon ibiltzeko. Udalerriko bederatzi gunetan gehituko dizkiote kilometroak, 2012-15eko Bidegorrien Planean jaso moduan: orain arteko bidegorri zati guztiak lotuko dituzte. Lanak udabarri honetan gauzatuko dituzte eta 12 astez luzatuko dira; inbertsioa, barriz, 158.370 eurokoa izango da.

Getxoko eta inguruko txirrindulariek laster beste zortzi kilometro izango dituzte bizikletaz herrian lasai ibili ahal izateko. Izan ere, gaur egungo bideak lotuko dituzte, guztira 25 kilometroko sarea osatuz; 2012-15eko Bidegorrien Planean jaso zuten asmo hori. Udalak iragarri duenez, udabarri honetan abiatuko dituzte obrak Getxoko bederatzi gunetan: “*auzo guztiak 19 ikastetxe, zazpi kirol-instalazio, aisialdi-gune, merkataritza-zentro eta sei metro geltokiekin lotuko dira*”.

Areeta, Romo eta Negurin ondoko bidegorri-tarteak egingo dituzte, guztira 1.860 metro luze: Maximo Agirre kalean 70 metro; Kale Nagusian 465 metro; Errekagane eta Areetako Moila lotzeko 872 metro; Leioako etorbidean 152 metro; eta Makaleta, Bolueko Hezegunea eta Larrañazubi ikastetxea lotzeko 302 metro.

Gainera, Udalak jakinarazi du Gobela kiroldegia eta Avanzadaren arteko lotura Ura agentzia egiten ari dela, Errekaga-



Zugatzarte pasealekuko bidegorri zatia

nen ibaiertza urbanizatzeko obra dela-eta; “400 metroko luzera izango du bidegorri zati horrek eta tarte berriei gehituko zaie”.

Algorta eta Andra Mari, barriz, ondokoak lotuko ditu, 5.880 metro bidegorri eraikiz: Algortako Geltokia plaza Fa-

“Lanak 12 astez luzatuko dira eta, amaitutakoan, 25 kilometro izango ditu bidegorriak Getxon”

dura eta Makaleta etorbideagaz (2.350 metro); Salsiduko biribilgunea, barriz, Al-dapa, Zubilleta ikastetxea eta Fadura atze-aldeagaz (1.440 metro); Ormazako biribilgunea Santa Marina eta Aixerrotagaz (1.920 metro); eta Bidezabal kalea Aixerrotagaz (191 metro).

Udalak gaineratu du tarte “*gehiene-*

tan” seinale horizontalak eta bertikalak ipiniko dituztela. Bestalde, oinezkoakaz partekatu beharko dute txirrindulariek hainbat bidegorri zati eta, erabilera partekatu hori adierazteko, baldosak ipiniko dituzte; hain zuzen ere, “*bakarrik*” Zugatzarte eta Errekagane kaleetako tarteetan egokituko dute “*berariazko bizikleta bidea*”. Era berean, Cervantes kalearen eta Zugatzarte pasealekuaren arteko konexioa “*guztiontzat irisgarri egiteko baliatuko*” dituzte Zugatzarteko lanak.

Bidegorri tarte barri horiek atontzeko inbertsioa 158.370 eurokoa izango da eta lanak 12 astez luzatuko dira, eguraldiak uzten badu, bederen: “*jarduketa askotan pintatu beharra dagoenez euriaren menpe baitaude lanak*”, dio Udalak. ○

Info+: www.getxo.net

Dendak kalera! Getxoaktibatu! ekimena oraindik urrira arte



lazko programaren baitako ekimenetako bat

Getxoaktibatu ekimena abiatu dute, bigarrenaz: oraindik eta urrira bitartean kultur, kirol eta aisialdi osasuntsua sustatuko ditu. Tokiko merkatariek, profesionalek eta ostalariek bultzatu dute programa, Getxolan, Kultur Etxea, Getxo Kirolak, eta udalerriko kultura eta kirol elkarteakaz alkarlanean.

Getxoztarrek, beraz, askotariko ekimenetan parte hartzea izango dute: hitzaldiak, tailerrak, erakusketak, hizkuntza-eskolak, e.a. Martxoaren 29an izan zen lehena Algortako Satistegi plazan, dantza-eskolaren emanaldiagaz. Hortik aurrera, dozenaka ekitaldi prestatu dute dendetan eta Getxoko kaleetan, barbarako: apirilaren 12an, Zumba-saioa egingo dute Algortako Tellagorri plazan, 11:00etan; hilaren 26an, barriz, yoga eta taichi klasea

emongo dute Bizkaiko zubian 11:00etan, eta ordu erdi beranduago txirrindulagaz txangoa egingo dute Algortako Telletxe plazatik abiatuta. Gainera, aurren nobedade bi izango dira: ekainean *Getxo Street Culture* eta irailean Uretan delako ur-jaialdia; “*klubek dozena bat kirol-jarduera hurbilduko dizkiete herritarrei*”.

“*Jarduera bultzatzeaz eta tokiko merkataritza ezagutarazteaz gain*”, asmoa da “*kultur eta kirol jardueren praktikak hiriko inguruetan sustatzea, eta herritarrei gure udalerrriak gordetzen duen talentua elkarrekin partekatzeak aukera ematea*”, Udalak dioenez. Horrela, Getxoaktibatun “*izaera zabala denez*”, parte-hartzeko gonbidapena luzatu diete merkatariei, profesional, ostalari, elkarte eta herritarrei. ○

Info+: www.getxoaktibatu.com

GERNIKA PARKEKO AMBIGUREN KUDEAKETA

Neguriko Gernika Parkeko Ambigu gunea bost urtez kudeatzeko eskaintzak aurkez daitezke apirilaren 24ra arte, ostalaritzako establezimendu-jatetxe gisa erabiltzeko. Esleipendunak urtero aldian aldiko kanona, 6.242 euro (zergak kanpo), ordaindu beharko du. Baldintzak araupetzen dituen agiria udal webgunean dago eskuragarri, eta eskaintzak aurkeztu behar dira Udal Ondare eta Etxebizitza sailean (Foruak, 6). Parkeak 13.000 metro koadroko azalera dauka eta Udalak 2.760.000 euro inbertitu du berau atontzeko.

Info+: www.getxo.net

FORMAZIOA INDUSTRIA KULTURALETAN

Kulturaren eta sormenaren industria-sektoreetan trebakuntza-programa diseinatu du Getxolanek, udalerriko 25 gazte langabeturi zuzenduta: kulturaren eta sormenaren industrien sektoreko enpresa batek planteatutako benetako erronka bati erantzun beharko diote parte-hartzaileek, bost laguneko taldetan eta sei asteko epean. *Transcreativa* europar proiektuaren barruan garatuko dute eta helburua da kultur eta sormen-industrien sektorean gazteen enplegua bultzatzea. Maiatzean eta ekainean garatuko da eta EHUKo Gizarte Berrikuntzarako Sinnergiak Zentroaren laguntza dauka.

Info+: www.sinnergiak.org

SAKABANAKETAREN AURKA MOZIORIK EZ

Presoen sakabanaketaren aurkako mozioak ez zuen aurrera egin martxoko Osoko Bilkuran. Etxeraten mozioaren alde agertu zen EHBildu, kontra PP eta PSE, eta EAJ abstenitu zen. Mozioak salatzen zuen martxoaren 14an bizia galdu zutela bi getxoztarrek: “2013an, espetxealdi gogor eta luzearen ondorioz gaixo larri zen Angel Figueroa zendu zen eta, 16 urte lehenago, Antxoni Fernandez bere amama”, auto istripuz, iloba ikustera zihoala. Horregatik, “sakabanaketarekin eta urruntzearekin” amaitzeko eskatzen zuen mozioak.

**Inprimatu zure posterra
airetik ateratako Bizkaiko argazki onenekin**

Pilo bat daukazu aukeratzeko



www.bizkaiadesdeelaire.com

Sar zaitetz zure eskaera egiteko

9,32€

-tik hasita
BEZ barne



Elena Moreno Scheredre > idazlea

“Maitasuna planteatzen dut bere atzapar eta pasioakaz, eta zelan zaramatzan”



Info+: www.planetadelibros.com

Donde quiera que estes (Zauden tokian zaudela) da Elena Moreno Scheredre idazlearen bigarren eleberria. Bilbon jaioa, baina Getxoko bizilaguna dugu duela hiru hamarkada eta, hain zuzen ere, Getxon eta Bilbon kokatu du bere istorioa, lehenengo eleberriagaz egin moduan. Planeta argitaletxeak kaleratu du azken lana: “Maria Noriegari senarra hil zaio eta bere bizitza hankaz gora lotu da, senarraren heriotzak erantzunik bako galdera ugari utzi du-eta: Zer egiten zuen toki hartan? Zerikusirik daukate bere heriotzak eta idazten ari zen nobelak?”

—Protagonistetako batek korrika egin ohi du Glean eta Getxoko portuan, eta Bilbon ere gertatzen da istorioa.
—Protagonista biak bizi dira hemen, baina bertakook, oraindik orain, lanerako erreferentzia daukagu Bilbo. Ni Bilbon jaio nintzen eta Bartzelonan ikasi nuen kazetaritza. Horren ostean ezin izan nion itsasoari uko egin eta Getxora etorri nintzen. Gainera, nire amama Areetako lehen merkatarietakoa izan zen, eta ama Areetan jaio zen: nire sustraietara jo dut. Gainera, sormen literarioaren kasuan, ha-

sieran ez daukazu ezer eta, beraz, niretzako garrantzitsua da istorioa eraikitzen den zoru narratiboa toki ezaguna eta maitatua izatea: babesten nau.
—Misteriozko eleberria da?
—Misteriozkoa da, baina ez ezagutzen dugun misterioa. Lehen orritik alarguna da protagonista, baina misterioa zera da: lagun maite bat galdu duen pertsona bat inguratzen duen misterio emozionala. Izan ere, bat-batean konturatzen da agian ez duela ezagutzen hari buruzko guztia. Gehien erakartzen nauden misterioa da

guztioak gordetzen duguna, ingurukoen bizitzari buruz sumatzen duguna: ba-dirudi ezer ez dela gertatzen euren bizitzan, baina ez da horrela; beti dago zer edo zer. Misterio emozional hori da gустuko dudana eta narrazioaren misterioan biltzen dudana.

«Norbanakoen misterio emozionala biltzen dut narrazioaren misterioan»

—Eleberriak tranpa ei dauka, zergatik?
—Nire nobela guztiek daukate tranpa. Esaten dute maitasunari buruzko idazlea naizela, nobela erromantikoa dela, baina inondik ere ez: maitasun arrosa eta azukreztatut hori planteatu ere ez dut egiten. Maitasuna planteatzen dut bere atzapar eta pasio danakaz, eta zelan zaramatzan beragaz. Askotan pertsonen bizitza osatzen du, batez ere emakumeonak; emozioei sentikorrango izaten gatzazkie-eta beste gauza batzuei baino.
—Zer eragin gura duzu irakurleengan?
—Lagun nazatela narrazioan, baina nigandik oso gertutik. Gustuko dut narrazioek bereganatzea eta hunkitzea eta, beraz, nik ere horrela idazten dut. Adibidez, nobela historikoak ez nau erakartzen gehiegi, nahiago dut bere istorioan nahastenuen narrazioa, eta pertsonaiak gertukoak sentitzea. Horregatik kokatu ohi ditut nire pertsonaiak bizi ditudan urteetan edo garaian, nahiz eta gero denboran aurrera edo atzera egin, adibidez, zerbait gogortzean. Eta gauza ukigarriak idazten ditut, gaur-gaurkoak. Gainera, esatea irakurleek babestua sentitzen naizela oso: karrera hau oso zaila da, baina irakurketa ezinbestekoa da zera ezagutzeko: so egiten diezun tokiei buruz idazten duen pertsona baten begirada, oraingoan nirea. ○

Txorimaloa dantzan zortzi urtez: Getxoko gaztetxearen urteurrena ospatuko dute 22tik 26ra



Kontzertuak zapatu gauean izango dira

Zortzigarrena ospatzera doa Getxoko Txorimalo gaztetxea, zortzi urte daroaz eta herrian gazte-giroa astintzen. Apirilaren 22tik 26ra askotariko ekimenak antolatutuzte gaztetxeko kideek.
Martitzen arrastian izango da hasieratekitaldia, apirilaren 22an, 19:00etan. Jarraian film labur emanaldia egingo dute, eta horren ostean belaunaldien arteko afaria: gaztetxearen parte sentitu den edonork parte har dezake. Hilaren 23a, barriz, Herri Eguna izango da eta Algortara hurbilduko dira gazteak: San Nikolas plazan umeentzako jarduerak eta De Balde azoka egingo dituzte. Hurrengo egunean

eta gaztetxera bueltatuz, agrolinpiadak eta bertso-afaria izango dira; Imanol Uriak eta Odei Barrosok abestuko dute. Apirilaren 25ean, *Desentxufatuak* antzezlanareta kantautore-emanaldia izango dira.
Eta zapatuan amaituko da ospakizuna: eguerdian tortilla-txapelketa, bazkaria, gero jokoak eta, 20:00etatik aurrera, kontzertuak: Derailed eta Joxe Riplay taldeak, eta DJ Mj txikitron (Iruñetik) arituko dira. Sarrerak 5 euro balio du baina, bazkaritarako txartelagaz batera hartuta, bino 8 euroan eros daiteke (bariku goizera arte egongo da salgai). ○
Info+: txorimalogaztetxea.blogspot.com

UMEENTZAKO ZINEMA HIL AKABUAN AREETAN
Areetako Andres Isasi musika-eskolan izango dira XXXI. Haur Zinema Jardunaldiak, Aste Santuko oporretan. Apirilaren 22tik 25era egunero emongo dute film bat, 17:00etan. Hilaren 22an izango da *Epic: el mundo secreto*; apirilaren 23an, *Betizu eta urrezko zintzarria*; hilaren 24an, *Futbolin*; eta apirilaren 25ean, barikuagaz, *Gru 2: mi villano favorito*. Ohi legez, umeentzako filmak ikusteko sarrerak 2,10 euroan salduko dituzte.
Info+: www.getxo.net

SAHARAR UMEAK UDAN ETXEAN HARTU GURA?
ATFAL Sahararen aldeko Getxoko Elkarteak aurtun ere abiatu du *Oporrak bakean* kanpaina, getxoztarrek saharar umeak udan etxean hartzeko. Horretarako interesa daukatene apirilaren 25a baino lehen emon behar dute izena Getxoko Udaleko Lankidetzako sailean (944 660 017 eta lankidetz@getxo.net). Baldintza bakarra da udalerrian erroldatuta egotea. Programak aukera eskaintzen die 7 eta 12 urte bitarteko saharar umei “*bi hilabetez Tindoufeko errefluxiari kanpamenduetako errealitatea ahazteko*”. Helburuak dira umeen oinarrizko premiak asetzea, osunazterketa egokia eskaintzea, kultura trukatzeara eta sahararrek pairatzen duten egoeraz sentsibilizatzea herritarrak.
Info+: atfalgetxo@gmail.com

THE PUB IBILTARIRAKO KANTARI BILA DABILTZA
Oskorriren The Pub Ibiltaria Getxora iritsiko da maiatzaren 3an. Areetako Andres Isasi musika-eskolan izango da ikuskizuna eta kantari bila dabilta. Hau da, musika taldeagaz kantu bat abestera animatuko diren taldeak behar dituzte, emanaldi ederra osatzeko: kanta bat prestatu eta parte hartu gura duzu? Izen-emotea oso erraza da: Marta Herrera Getxoko kultur etxeko dinamizatzaileagaz harremanetan ipini besterik ez duzu: 944 319 280.



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



Gonzalez, Karakuel, Martinez de la Hidalga eta Alvarez > Laponian zeharkaldia

“Artikoak magia dauka urte osoan: udan argia dago egun osoan eta neguan ez, baina aurora borealak daude”

Lander Alvarez leioaztarra Laponian ibili da otsail-martxoan, beste hiru lagunegaz batera: Gontzal Martinez de la Hidalga eta Sergio Gonzalez bilbotarrakaz, eta Kepa Karakuel ibarrangeluarragaz. Eskiz zeharkaldia egin dute Finlandiako Laponian, 200 kilometro inguru ibili dira, Nuorgam herritik Ivalo herrira: abenturaren argazkiak dauzkazu UK-ko Fotografia atalean.

—Batzuk lehenengoz egon zarete Laponian, besteak beteranoak zarete.
—Kepak eta Sergiok elkar ezagutzen zuten eta hainbat zeharkaldi egin dituzte Artikoan. Laponian hirugarrena izan du Sergiok eta bosgarrena Kepak. Landerrek Lizardi mintza-taldetik jaso zuen bidaia-
ren barri, jendea behar zela, eta animatu zen. Azkenik, Gontzal bidaia hasi baino astebete lehenago animatu eta oso egun gitxian lortu zuen antolatzea.
—Hainbestetan joan zarete Laponiara, zer dauka leku hark?
—Eski segurua, edur segurua, orain arte behintzat; aurten ikusitakoaren ostean, ez dakigu. Ohi baino epelago egon da, euria egin du eta hori ez da, ez normala, ez ona: eskiatzeko elurra behar da egoera onean.



Zeharkaldiak 17 egun iraun zuen guztira, 13 etapagaz

—Eskiz ibili zarete, zelan eroan dituzue janaria eta beharreko gauza guztiak?
—Tiraka, horrela eroaten da han materiala. Pulka izena daukaten gailu batzuetan gauzak sartu, gerrira lotu eta tira, irristaka. Zeharkaldia 13 etapa izan dira eta tartean hiru egunez hartu dugu atsedena: 17 egun.
—Mantso joan behar izaten da?
—Beno, leku lauetan nahiko ondo eroaten da, irrist egiten duelako; maldan gora gehiago kostatzen da. Eta elurraren egoe-

raren arabera ere aldatzen da: elurra bigun badago pulka apur bat lurperatzen da eta gehiago kostatzen da eroatea.
—Eguraldi epela dela-eta izotz gainean ere ibili behar izan duzue?
—Bai, normalean han dena dago elurtuta, izoztutako lakuak barne; izotz gainean elur geruza bat lotzen da eta haren gainean eskia daiteke. Oraingoan, barriz, elurrik ez zegoen eta laku gainean ibiltzeko oso gaitza zen. Elur-erraketak ipini eta ibi-

liz zeharkatu genuen lakua. Klima aldake-tagaz gero eta murriztagoa da elurretan ibiltzeko aukera. Gaur egun, Europako beste inongo tokitan ez dago ziurtatuta elurra; iparraldera jo behar da horrelako zeharkaldiak egitera.
—Eta lotarako, zelan moldatu zarete?
—Sinestezina: kristoren aterpe sarea daukate basoan, beti zabalik daude, luxuzkoak esango genuke. Izan ere, aterpe bakoitzak hiru etxola zituen: bata komuna, bigarrena egur-tokia eta hirugarrena lotarako tokia, sukalde, berogailu eta guzti; polit-polita eta beti ondo hornituta. Estatuak hartzen du bere kargu aterpeen zaintza eta mantentzea. Anima gaitzezen Euskal Herriko mendi elkarte edo sareari aterpeak egin eta mantentzera, eta erabiltzaileei horiek zaintzera, merezi du-eta. Esatea lehenengo gauean ez ginela heldu aterpera. Etxola bat topatu genuen, seguruek udan erabiliko dute, itxita zegoen baina sauna irekita: bik saunan lo egin genuen eta beste biak kanpin-dendan.
—Eta zelan kanpin-dendakoak?
—Beno, deserosoa batez ere kondentsazioa da. Han kondentsazioa izoztu egiten da dendako paretetan eta lo-zaku kanpoan. Gero, kondentsazio hori urtzen bada, busti egiten du: lo-zakua nahikotxo busti zitzaigun gau hartan, baina beste barik.
—Elurraren eta zeruaren zuria, zuhaitzen beltza; ikusi zenuten kolore bakarra aurora borealaren berdea izan zen?
—Artikoak magia dauka urte osoan. Gontzal udan egonda zegoen txirringaz, orduan argia dago egun osoan. Neguan ez, baina aurora borealak daude. Lurreko leku epeletan urtaroak ez dira hainbeste aldatzen: hemengo argazki bat edozein

urtarotan izan daiteke, baina Artikoan oso desberdina da urtean zehar gertatzen diren gauzak, denak magia handikoak.
—Zenbat argi-ordu izan duzue?
—Erabilgarri 11 inguru: eguzkia urten aurretik eta sartu ostean oraindino bada-
go argia ordu eta erdiz ibiltzeko moduan.
—Bertakoakaz hartu-emanik izateko aukerarik izan duzue?
—Hango biztanle-dentsitatea oso txikia da, Europako txikiena. Bertako bizilagunak jende oso interesgarria dira, baina askotan egunak eta egunak emoten genituen inor ikusi barik. Politena da euren giroan ikustea, basoan; baina askoz ere errazagoa da herrietan topatzea. Gaur egun, samiar edo laponiar gehienak herrietan bizi dira, gainontzeko populazioagaz nahastuta; elur-motorrak asmatu zirenetik oso gitxik pasatzen du urte osoa mendian;

«Herrietan bizi dira samiar gehienak, gaur egun ez daude urte osoa mendian»

ederra da mendia, baina bizitzeko gogorregia. Batzuk ezagutu ditugu, baina herrietan. Zeharkaldian topatu ditugun pertsona bakarrak izan dira frantses bikote bat eta motorrakaz zihoan talde bat.
—Hurrengo abentura buruan daukazue?
—Ideiak eta ametsak badauzkagu, Eskandinabian, Groenlandian... milaka leku dago. Nik uste nuen ate bat zabalduko zela eta kristoren portala zabaldu da (Landerrek); baina kudeatu behar da, orain txoriak dabiltzalako buruan bueltaka. Nik etxeko liburutegian atala daukat Artikoari eta poloei buruzkoa (Gontzalek) eta ate bat zabaldu zait lagun hauei esker. o

ROBERT CAPARI BURUZKO ERAKUSKETA

Kultur Leioako hemerrotekan ikus daiteke Robert Capa argazkilaria hungariar ezagunari buruzko erakusketa apirilaren 30era arte (benetako izena Ernő Friedmann, 1913-1954). Capak gatazka politikoetako argazkiak egin zituen batik bat. 1936an Espainiara joan zen gerraren barri emoteko eta ospetsu egin zen gerrako argazkirik ezagunenetako bati esker: *Milizianoaren heriotza*. XX. mendeko ikur bihurtu eta aldizkari garrantzitsuenetan argitaratu zuten: Capa izan zen argazki-kazetaritzaren aitzindaria.

Info+: www.kulturleioa.com

APIRILEKO ZINEMA KULTUR LEIOAN


Apiरिकo zinema-eskaintzaren barri zabaldu du Kultur Leioak. Hileko azken aste akabuan, apirilaren 26 eta 27an proiektatuko dute *El caballero Don Laton filma* umeentzat, 17:30ean. Nagusientzat, barriz, *Asier eta biok* emongo dute 26tik 28ra, 20:00etan. Gainera, Perseo Zineforum programaren barruan emongo dituzte ondoko filmak: apirilaren 15ean *De tal padre tal hijo*, 22an *Alabama Monroe* eta 29an *El hombre de al lado*. Film horiek ere 20:00etan hasiko dira, eta jarraian solasaldia egingo dute, ohi legez.

Info+: cineforumleioa.blogspot.com

UMORE AZOKAN 45 OBRA ANTZEZTUKO DITUZTE

Maiatzaren 15etik 18ra izango da aurten Umore Azoka, eta 45 antzezlan ikusi ahaliko dira, horietatik 17 estreinaldiak. Horiek antzeztuko dituzte 43 taldek, horietatik 14 Euskal Herrikoak. Bestalde, kultur kudeatzaile profesionalak daborduko aukera daukate azokan izena emoteko: azokaren webgunera jo behar dute eta maiatzaren 2a baino lehen eskakizuna bete; hurrengo hilabete eta urteetan beste herrietan ikusiko diren ikuskizunak aztertzen dituzte kultur kudeatzaileek.

Info+: www.umoreazoka.org



Denboraldi berriko arropa prezio paregabeetan

Ibaiondo 7, 48930 Erromo-Getxo Tf. 94 656 21 57



Luberri Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Blzkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberri@euskalnet.net
www.luberri.biz

- Soropila ezartzea
Lurzorua prestatzeko lanak, drainatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.
- Seropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.
- Inausketak
Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Begoña Santiago > Akarlandako Forestal-Park barria

“Kalean kirola egitea, eta lagun-taldean edo familiarian egiteko aisialdi-alternatiba eskaintzen dugu”

Forestal-Park abentura-parkea zabaldu barri dute Akarlandan eta Zuhaitzetik zuhaitzera urtxintxen moduan ibiltzeko aukera eskaintzen du. Begoña Santiago da kudeatzaileetako bat.

—Martxoan zabaldu duzue parkea?

—Bai, azaroan hasi ziren lanak eta horiek amaitu barri zabaldu dugu. Bizkaiko Al-
dundiak lehiaketa publikoa deitu zuen parkea kudeatzeko eta Forestal-Park gure enpresak irabazi zuen; katea da eta hau da gure laugarren parkea.

—Zelakoa da?

—Parkeak hiru hektarea neurtzen du gitxi gorabehera, eta zuhaitzetik zuhaitzera ibiltzeko zirkuitu bi dauzka: familiarra eta kirol-zirkuitua. Familiarra ume txikiei zuzenduta dago batez ere (1,10 metrotik gorakoei); kirol-zirkuitua, barriz, 1,45 metrotik gorako umeei eta helduei. Horietako bakoitza lau modulutan banatuta dago, eta bidean hainbat jolas eta proba egin behar da; amaieran tirolina, liana eta antzekoak dauzkate eta, guztira, 70etik gora jolas dago. Zirkuitu familiarra ordu eta erdian egiten da, gutxi gorabehera, eta bestea ordu bi eta erdian. Gure monitorek arnesa ipintzen diete bisitariei, zelan erabili azaltzen diete eta hasieran jarraipena egiten diete, erritmoa hartu arte. Hale-



Info+: www.forestalparkbilbao.com

re, komeni da ume txikiak helduek lagun-duta joatea. Baina, orohar, proba horiek egiteko sasoia daukan edonor hurbil daiteke parkera.

—Zenbat ordaindu behar da sartzeko?

—Txikiak 17 euro ordaintzen dute eta kirol-zirkuitua egiten dutenek 22 euro (umeek zein helduek). Hamarretik gora laguneko taldeetan, barriz, umeek 16 euro ordaintzen dute eta helduek 21 euro, bertako bizilagunen moduan; hau da, pertsona bakoitzak euro bat gitxiago. Eta

hogeitik gora laguneko taldeetan bakoitzak euro bi gitxiago. Egutero zabaltzen dugu, 11:00etatik 19:00etara. Gainera, urtebetetzeetarako eskaintza berezia emotea aztertzen ari gara.

—Zer eskaintzen diezue?

—Kalean kirola egitea, lagun-taldean edo familiaran ekintza bat egiteko aukera da, eskualdetik atera barik. Azken batean, gertutasuna eta aisialdirako alternatiba eskaintzen diogu jendeari, ez dago-eta gisako eskaintza handirik inguruan. ○

Ibaian gora eta behera

Uretan **eta lehorrean** gidatutako **bisitak** abiatuko dituzte, **industria-turismoa** bultzatuz



Itsasadarrean txalupaz ezagutu ahaliko dira Altzaga, Axpe eta Lutxana auzoak

Industria-turismoa bultzatzeko apustua egin dute Erandioko Udalak eta Behargintzak: aztarna material eta immaterialak egokitzeko ekintzak abiatuko dituzte, bisitariek interpreta ditzaten; hau da, produktu turistiko bat sortzeko ikerketa egingo dute.

Turismo-pakete horrek uztartzen ditu: bisita gidatua uretan eta lehorrean, bisita autogidatua industriako agertokieta, itsasadarra produktu gisa, eta teknoturismo produktua (jardunean dauden enpresak eta fabrikak bisitatuta).

Bisita gidatuaren ibilbideak zati bi izango ditu. Bisitariek Altzagako kaian har-

tuko dute txalupa, handik itsasadarrean gora abiatzeko Lutxanara eta, horren ostean, Axpeko erriberara jaisteko. Oinez izango da bigarren zatia eta, txalupan jasotako informazioagaz, bisitariak Altzagako kaleetan barneratuko dira, “*auzo hori Erandioko industrializazioaren lehen faseko erdigune nagusia baita*”.

Bisita autogidatua aurrekoaren osagarri da “*Erandioko industria-historia kontatzeko orduan, bai edukiei dagokienez, bai erabilitako bitartekoei dagokienez*”. Halere, bisita gidatua egin ez dutenek ere egin dezakete oinezko bigarren zati hori. ○

Info+: www.erandio.net

ELI FERREIRAREN ARGAZKIAK 16RA ARTE

Emakume asko, istorio ugari. Horixe kontatzen du Eli Ferreira argazkilariaren erakusketak. Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean ikus daitezke irudiak apirilaren 16ra arte, goiz eta arrastiz. Egoera desberdinetan dauden emakumeei erretratuak egiten dizkie Ferreirak, horretan oinarritzen da bere lana, horrela “*emakumeen erretratua beti protagonista duten istorioak sortuz*”.

Info+: www.eliferreira.com eta www.facebook.com/eli.ferreira.fotografia

UDALEKUA ARABAKO ZUHATZA IRLAN

Piraguan eta itsasontzian ibiltzea gustuko baduzu plan ezin hobea daukazu udarako, non eta Zuhatza irlan, Araban: Ibili Munduan udalekua izango da abuztuaren 1etik 7ra. Parte har dezakete 6 eta 16 urte bitarteko umeek (1998-2008 urteen bitartean jaiotakoak), eta izena emon behar dute maiatzaren 29a baino lehen (kontuan izan tokiak mugatuak direla, horrenbestez, eskaera egin behar da ahalbait arinen). Erandion erroldatutako umeek 190 euro ordainduko dute eta, gainontzekoek, 200 euro. Animatu eta uda gozatu!

Info+: ibilimunduanbai@gmail.com

ASUKO PORTUKO HISTORIA ARGITARATUTA

Asuko portu zaharreko historia jaso du Carlos Rilova Jericok ondoko liburu honetan: *Aguas de oro. Historia del puerto viejo de Asua*. Hain zuzen ere, 2011n Eusko Ikaskuntzak eta Erandioko Udalak emondako ikerketa-bekagaz egindako lana da. Oinarria, barriz, iturri bibliografiko eta dokumentalak dira, eta modu sistematiko eta sakonean berregin du Rilova Jericok Asuko portu zahararen historia: Bandoen Gerra amaierako pasarteetatik abiatuta eta Bizkaian industria-iraultza finkatu zen unerarte. Interneten doan eskura daiteke lana, Eusko Ikaskuntzaren webgunean.

Info+: www.eusko-ikaskuntza.org

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

Tf-944305243/ 607952977-6 regaraizar@gmail.com
www.garaizar.biz
Illeta kalea 1 ALGORTA

EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

DIVENIRE IKUSKIZUNA
APIRILAREN 11N

Circle of trust & Logela konpainiek *Divenire* ikuskizuna eskainiko dute apirilaren 11n, barikuan, Kurtzio kultur etxean; 20:00etan hasiko da eta sarrerak 8 euro balio ditu (kultur etxean eros daitezke daborduko). Jordi Vilasecak zuzentzen du ikuskizuna eta hainbat diziplina nahasten ditu: break-dance, hip-hop, konposizio garaikidea eta multimedia... adierazpenik handiena egingo dute ikusentzuleak gozatu, hunkitu eta harrituko direlarik. Ondo pasa!

Info+: www.circleoftrustcrew.com/divenire

NAZIOARTEKO PALA
TORNEOA HILAREN 13AN

Sopelan badago zaletasuna: pilota eta pala txapelketa ugari hartzen du herriko pilotalekuak. Horien artean dago Open Bizkaia Nazioarteko 2014 Pala Torneoa. Domeka batean jokatu da, apirilaren 13an, eguerdiko 12:00etan. Sarrerak pilotalekuan bertan eros daitezke 5 euroren truke, baina esatea 16 urtetik beherakoak doan sar daitezkeela. Emaionk gogor pilotari!

Info+: www.sopelaudala.org

SOPELA AITZINDARI LED
TEKNOLOGIAN

LED Industriako ANILED Elkarteak Sopelako argiteria aldagetaren “*arrakasta*” aztertu zuen martxoaren 27an, LED inguruko jardunaldi batean, Udalak aditzera emon duenez. Hark Dioenez, “*antolatzaileen arabera, Sopelako proiektuan kontuan izan dute energia-eraginkortasuna, konponbide egokiak bilatuz, LED teknologia eta VSAP argiak uztartzeko*”. Beraz, Udalak eskuragai izan dituen baliabide ekonomikoak “*modu egokian*” kudeatu dituela uste dute. EEE Energiaren Euskal Erakundeak, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak ere parte hartu zuten. ANILEDen arabera, LEDagaz energia %50-60 aurrez daiteke.

Info+: www.sopelaudala.org

Urko zabalik dago!
Larrabasterrako hezegune barria goza dezakete sopeloztarrek



Auzolanaren bitartez landatu zituzten zuhaitzak paduran abenduan

Hesiak kendu dituzte eta herritarrek goza dezakete Urkoko berdegune barriagaz. Udalak ibarraren iparraldeko partzela bat zaharbarritu du, padura bihurtuz: Gobela eta Lemotza ibaien arteko gunea da, hain zuzen ere.

Udalak ezagutzera emon duenez, berlarra urten da landa eremuaren %80an, zuhaitzak loratzen hasi dira eta daborduko ikus daitezke animalia batzuk putzuen inguruan. Azaldu dutenez, gunebatzuetako belarra ez dute ebagiko: “*Horrela, landa garatuko da ziklo oso bat osatuz eta loreek haziak sakabanatuko dituz-*

te, espezieen mugikortasuna bultzatuz”. Bizibarritze osoa ikusteko, barriz, urteak behar dira, “*landare eta zuhaitzak hazi, basoak sortu arte eta animaliak gunean guztiz egonkortu arte*”.

Ekimen honegaz, Udalaren helburua zen Urkoko ekosistemak leheneratzea eta gunehori herritarrengana hurbiltzea. Horretarako, bertako espezieedun basoasortu eta urmael bi egin dituzte. Horrela, landare inbaditzaileen sarrera ere ekidin gura dute. Oinezkoentzako pasealekua ere badauka padurak, baso barria bertatik bertara gozatu ahal izateko. ○

Antton Zubia Igartua > Tete de la Course enpresako kidea

“Bizikletaren mantenua eta doiketa, eta biomekanika landuko ditugu ikastaroan”



Info+: www.tetedelacourse.cc

Bizikletak modu errazean konpontzen ikasteko *Cycling Tech* tailerra egingo dute apirilaren 12an Urko kiroldegian; *Tete de la Course* enpresak emongo du. Jon Ander Ortuondo Gorostizagoiza eta Antton Zubia Igartua industria-ingeniariak osatzen dute enpresa.

—Zer landuko duzue *Cycling Tech* tailerrean? Ez da hasibarrientzat, ezta?

—Beno, ikastaro bi daude, eta bat bada hasibarrientzat: *Ciclofficina* bizikleten tailer soziala da, eta txirringa eguneroko gauzetarako edo aisialdirako apur bat erabiltzen dutenei zuzenduta dago. Baina ikastaro hori maiatzaren 17an egingo dugu. Apirilaren 12an, barriz, *Cycling Tech* tailerra egingo dugu, aurrekoa baino teknikoagoa. Zuzenduta dago errepi-deko edo mendirako bizikletak erabiltzen dituztenei. Ikastaroa ez da beste munduko ezer, oinarritzkoa da. Arlo nagusi bi dauzka: bata da mantenua eta doiketa, eta lantzen ditugu transmisioa,

balazta-sistema eta suspentsioa. Ikastarolak dauka alde teorikoa goizez eta praktikoa arrastiz. Goizeko saioa bizpahiru ordukoa izango da. Arrastirako nork bere bizikleta eroan behar du.

—Eta beste arloa, zein da?

—Beste arloan landuko dugu apurtxo bat biomekanika: bizikleta zelan eduki neurrirra, ohiko zer arazo egoten den eta zelan konpon daitezkeen.

«Maiatzaren 17an bigarren tailer bat emongo dugu hasibarrientzat»

—Horixe da *Tete de la Course* enpresaren egitekoa? Zer lantzen duzue?

—Jon Ander eta biok ingeniari industriallak gara, eta arlo bi lantzen ditugu gure enpresan: batetik, diseinu eta garapen zerbitzua eskaintzen diegu bizikletei buruzko enpresei, produktu, grafia eta marka arloetan. Bestetik, aipatu hezkuntza-ikastaro bi horiek emoten ditugu. Beraz, gure lana arlo bitan banatzen da. ○

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa
eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

ANDER
DEVNA
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

OINUTSIK
KONTSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN
ZUTABE, OINEZ
EDONORA HEL
ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

**Gosariak,
Pintxoak,
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!!**

Bentatxu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

OIARBIDE
DEKORAZIOA

- Pladur: Tabikeak, zapaia, baldak
- Eskaiola: moldurak, kornisak
- Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...

Tf. 656 76 98 10 gorkaoiarbide@hotmail.com
Andikoetxe 2, 48993 GETXO

uk zure
publizitatea
hemen !

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

DOAKO MUSIKA KLASIKO KONTZERTUA

Apirilaren 12an, zapatua, Tatiana Cervinsky irakaslearen ikasleek kontzertua eskainiko dute Artebi, musika, arte eszeniko eta ikus-arteetako Bilboko eskolaren ekimenez. Aipatutako musika klasiko emanaldia arrastiko 17:00etan hasiko da, Berango Antzokian; eta sarrera doan izango da musikaz gozatzeko bertaraten diren guztientzat.

SAIO KULTURALAK ETXEKO GAZTEENENTZAT

Apirilaren 13an, domeka, Rosa Martinezek izenik ez duen sagu apartaren abenturak kontatuko dizkie udalerriko gaztetxoenei *Etxean goxo* izeneko txotxongilo-istorioagaz. Saioa arrastiko 18:00etan hasiko da, Berango Antzokian; eta sarrera hiru eurotan eskuratu ahal izango da. Astebete beranduago, apirilaren 20an, zinemaz gozatzeko aukera izango dute udalerriko neska-mutilek *Jelly T. Tarzan eskasa* filmagaz. Hitzordua 18:00etan jarri dute, eta sarrera doan izango da.



BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com

MR TALLER MECANICO

Coches, Motores Marinos y Fuerabordas

Mota guztietako konponketak: Azterketak, Gurpilak, Indargetzaleak, Soinua....

Tf. 94 430 17 81

Bidezabal Kalea 9
48993 GETXO



Mikel Torre > Bilbao Basket Campusa

“Saskibaloiaz gain, beste hainbat kirol-jarduera ere egingo ditugu”



Jarduera guztiak Berangoko udal kiroldegian egingo dituzte

Bilbao Basket Campusa hartuko du aurten Berangok, apirilaren 14, 15 eta 16an. BizKir taldeak antolatuko ditu, eta horren partaide den Mikel Torrek campus horren nondik norakoak azaldu ditu.

—Zer eskaintzen du Bilbao Basket Campusak bertara apuntatzen diren neska-mutilentzat?

—Lehenengo eta behin, gure campus guztiek bezala, Berangokoak kirolaren bitartez dibertitzea eta saskibaloian jo-
katzen ikastea du helburu, hasiera eta trebakuntza mailetan. Gazteenek futbo-
lean eta kirol anitzetako jardueretan ari-
tzeke aukera ere izango dute.

—Hortaz, saskibaloian aritzeaz gaine-
ra, jarduera gehiago egingo dituzue.

—Bai, gure campus guztietan bezala, jar-
duera osagarriak izango ditugu: dantza
moderno, patinajea eta beste kirol ba-
tzuk, hala nola, futbola.

—Nortzuk emango dituzte eskolak?

—Guk geuk Berangoko eskolako hain-

bat jardueratan parte hartzen dugu, eta
horietan aritzen garen monitoreak aritu-
ko gara campusean. Horrez gainera, Biz-
kaiko saskibaloian eskarmentu handia
duten beste monitore batzuk ere egongo
dira gugaz.

«Campusa 4 eta 15 urte
bitarteko neska-mutilei
zuzenduta dago»

—Nori zuzenduta dago campusa?

—4 eta 15 urte bitarteko neska-mutilei
zuzenduta daude, bai Berangokoei zein
inguruko herrietan bizi direnei ere.

—Saioak non izango dira?

—Jarduera guztiak Berangoko Udal
Kiroldegian egingo ditugu, 09:30etik
13:30era.

—Zenbat ume hartuko dituzue aurten?

—Kopuruari dagokionez, ez dugu alde-
z aurretik zehaztutako inolako kopururik.
Izena ematen duten umeen adinaren ara-
bera arituko gara, instalazioak ahalik eta
ondoan erabili ahal izateko. ○

Info+: www.campusbilbao.com

Iñigo Ruiz > Uribe Kosta Geodibertsitatea

“Natura turismoagaz eta kulturagaz
lotu gura dugu”



Azkorriaga gotorlekuraino joango dira antolatutako ibilbidean

Uribe Kosta Geodibertsitate-taldeak
Gorlizko Azkorriaga gotorlekurainoko
ibilbidea egingo du apirilaren 19an, za-
patua. Jarduera goizeko 11:30ean hasiko
da, eta interesatuek 5 euro ordaindu be-
harko dute horretan parte hartzeko. Ho-
rretan, eskualdeko inguruak duen geo-
dibertsitatearen nondik norakoa ezagutu
ahal izango da.

—Ibilbidean parte hartzera animatzen
direnek zer ikusiko dute?

—Irteerara datozenek, dinosauroak de-
sagertu ziren kokaleku zehatza, hainbat
dinosauroren aztarnak, fosilizatutako
dunak, Bizkaiko flyscha eta euskal geolo-
gok deritzogun gure “*Sixtina Kapera*”,
hau da, Barrikan dauden Txixtaropun-
tako pliege angularrak ikusi ahal izango
dituzte, besteak beste.

—Zer duzue presatuta horretarako

—Kostaldekoko ibilbidea aprobetxatuz,
natura turismoagaz eta kulturagaz lo-
tuko dugu, edonork egin baitezake bide
hori. Geologo batek egingo ditu bisita

gidatuak, eta disziplina anitzeko ikus-
puntu batetik (geodibertsitatea, biodi-
bertsitatea, historia...) inguruko aberas-
tasuna azalduko du.

«Uribe Kosta eskualdeak
Interes Geologikoko
8 gune ditu»

—Zer du berezi gotorlekuak?

—Azkorriagako XVIII. mendeko gotor-
leku defentsiboa da, eta hori jendeak ba-
daki. Baina askok ez daki eraikuntza hori
arrezifalen eta bioeraikuntzen aztarnak di-
tuen plataforma karbonatatu batean egin
zutela, eta horrek aberastasun paleontolo-
giko handia du. Hala, esan genezake
Kretazikoko Euskal Karibea izan zela toki
hura.

—Zeintzuk ezaugarri ditu Uribe
Kostako geodibertsitateak?

—Uribe Kostak 8 IGG (Interes Geolo-
gikoko Guneak) ditu, Eusko Jaurlaritz-
aren Euskadi 2020 geodibertsitate kan-
painaren barruan. ○

Info+: ukgeodiversidad@gmail.com

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behea eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



UKnatura

ZITEK PORTUALETE
ESCUELA SUPERIOR DE NAUTICA - PORTUALETE
MARIA DIAZ DE HARO 48
48960 PORTUALETE (BIZKAIA)

2013-2014 KURSOA

- *BIOERAIKUNTZA TALDEAK
- *ARTISAU YABOLAK ETA KOSMETIKOAK
- *BIOERAIKUNTZAKO PROIEKTUAK
- *ENERGIA BERRIZABARRIAK
- *HOOZU KAYAK

ETA AGOKOZ BEHAGUO

www.uknatura.org 692705471 / 646742241





**COMERCIAL
de LIMPIEZA
VILLAR S.A.**

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrial
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea,
garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak
eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezavillar.com



zaindu

Esku Terapia Zentrua
Osteopatia · fisioterapia

Ane Nafarrate Martin

Doctor Ianda 4, Sopela
Telf.: 946026779



UMEENTZAKO EKIMENAK
BARRA-BARRA BARRIKAN

Apirilaren 23, 24 eta 25ean Liburuaren Astea ospatuko dute Barrikan. Lehenengo egunean, eguaztena, ipuin kontalaria egongo da, udal liburutegian. Hurrengo egunean, orri marka-gailu tailerra; eta azkenik, apirilaren 25ean, zinema egongo da Ander Deuna kultur aretoan. Saio guztiak 18:00etan izango dira eta 4-12 urte bitarteko umeei zuzenduta daude.

ARGHIZKIAK ERAKUSKETA
ARMINTZARA HELDU DA

ArgHizkiak Uribe Kostako literatura-lehiaketan parte hartu zuten lanak ikusgai daude apirilaren 15era arte, Armintzako kultur etxean. Lan horiek hainbat argazkitan oinarritutako testu laburrak dira. Lehiaketa horregaz, jendea euskaraz idaztera eta irakurtzera animatu gura izan zuten; argazkilari uribekostarren lana ezagutarazteaz gainera.

URDULIZKO TOPONIMIA
LIBURU BATEAN

Urdulizko 600 toponimo inguru batuko dituen liburu bat bultzatu du tokiko Udalak, Euskaltzaindiagaz batera. Agustín Egaña ikertzaileak idatzi du aipatu lana, eta bost urtez horretan aritu ostean, maiatzean kaleratzea aurreikusi dute. Liburuak 117 orrialde izango ditu, eta horiek guztiak betetzeko, Egaña hainbat auzokideren laguntza behar izan du. Horregaz batera, Urdulizko mapa historikoa egin du ikertzaileak.

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32

Tf. 94 460 90 31

48990 ALGORTA

Lemoiz

Genero-ikuspegidun herria sortu gura dute herritarren partaidetzagaz



Kafe-eztabaida maiatzaren 9an izango da, arrastiko 18:00etan, Lemoizko Kultur Etxean

Lemoizko Udala udalerriko hirigintza genero-ikuspegitik aztertzeke eta hobetzeko proiektu bat prestatzen dabil. Horretarako, auzokideen parte hartzea beharrezkoa dela ikusi dute. Arduradunek jakinarazi dutenez, gizon-emakumeek herria zelan erabiltzen duten aztertu gura dute, *“batzuok eta besteok ditugun beharrianak zeintzuk diren jakiteko”*.

Azterlan horregaz, behar horiek guztiak era berdintsuan bermatuta egotea lortu gura dute. Horrenbestez, herria hobeto egokituko dute herritarren beharri-zanetara, hala nola, garraioa, ekipamenduak, kale-altzariak, herriaren banaketa, eraikiko diren etxebizitzaren ezaugarriak eta segurtasuna e.a.

Herritarren iritzia funtsezkoa dela us-te dute, eta partaidetza prozesua antolatu dute horretarako. Prozesuak bi fase izango ditu: lehenengoa, elkarrizketak; eta bigarrena, kafe-eztabaida. Elkarrizketak telefonoz egingo dituzte, eta horietan, elkarriz-

ketatzaileak udalerrian bizi duen esperientzia zelakoa den galdetuko dio elkarrizketatuari. Kafe-eztabaidan, barriz, hitaldi batek emango dio hasiera saioari, herri lagunkoia eta inklusiboa zelakoa den eta zer harreman duen generoak herriaren erabileragaz azaltzeko. Horren ostean,

«Proiektuan parte hartu gura duenak izena eman dezake 946 879 025 telefono zenbakira deituz»

atsedena hartuko dute, eta jarraian, hainbat lan-taldetan banatuko dira herrian zer aldatu behar den eta zelan egin behar den eztabaidatzeko. Azkenik, udalbatzan azalduko dituzte agertutako gogoeta guztiak, ondoren komunean jarri ahal izateko. Ateratako ondorioak hirigintza-politikak planifikatzeko erabiliko direla jakinarazi dute arduradunek. ○

Info+: www.lemoiz.eu

Api. 7 - Api. 22

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 944 911 337

ANTZERKIA

SOPELA

► **Divenire ikuskizuna.** Apirilak 11, 20:00etan. Kurtzio kultur etxean. 8 euro.

GETXO

► **El tipo de la tumba de al lado.** Apirilak 12, 20:00etan. Andres Isasi musika-eskolan. 10/8 euro.

► **Kamishibaitik ipuinak.** Apirilak 24, 18:00etan. Algotako kultur etxean. Doan.

BERANGO

► **Txotxongiloak: Etxean goxo.** Apirilak 13, 18:00etan. Berango Antzokian. 3 euro.

LEIOA

► **Aladino.** Apirilak 13, 18:00etan. Kultur Leioan. 5 euro.

► **Despues de todo.** Apirilak 25, 20:30ean. Kultur Leioan. 10 euro.

BARRIKA

► **Ipuin-kontalaria.** Apirilak 23, 18:00etan. Liburutegian. Doan.

ERAKUSKETAK

ERANDIO

► **Eli Ferreiraren argazkiak.** Apirilaren 16ra arte. Astrabuduko kultur etxean.

GETXO

► **Euskal kostaldeko Flyscha Getxon.** Apirilaren 30era arte. Algotako Torrene aretoan.

► **Fariza: nire figurazioak.** Apirilaren 30era arte. Algotako kultur etxean.

LEIOA

► **Robert Capa.** Apirilaren 30era arte. Kultur Leioako hemerotekan.

► **Jaialdia**
Kanpomartxo apirilaren 13an, Santimamin
“Jai euskalduna eta herrikoia, Berbotsen nahia: Erandion euskaraz!”, hori dio Kanpomartxoren abesti barriak. Aurten Santimami auzora hurbilduko da jaialdia, apirilaren 13an, domekan. Eguerdian hasiko da jaia: dantza-erakustaldia egingo dute Trabudu, Goi-Alde eta Uztargi taldeek. Amaitutakoan, Mendibaiarte abesbatzak eta bertsolariek kantatuko dute: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso gonbidatu dituzte. Bazkalostean, barriz, Roberto Etxebarrigaz abestuko dituzte betiko kantuak eta umeentzako ikuskizuna egingo dute Puskari eta Txurruski pailazoek. Eguna ganoraz amaitzeko, Garilak 26 taldearen erromeria izango da 18:00etatik aurrera. Erdu euskaraz!

• **Non:** Santimami auzoan • **Noiz:** Apirilaren 13an, egun osoan

MUSIKA

GETXO

► **Willy Endaya.** Apirilak 10, 20:00etan. Romoko West Side tabernan. Doan.

LEIOA

► **Kalakan.** Apirilak 11, 21:00etan. Kultur Leioan. 10 euro.

BERANGO

► **Musika klasikoa.** Apirilak 12, 17:00etan. Berango Antzokian. Doan.

► **Los Txikis.** Apirilak 12, 19:00etan. Berango Antzokian. 1 euro.

ERANDIO

► **Musika banda.** Apirilak 25, 20:00etan. Azoka zaharrean.

ZINEMA

GETXO

► **La gran belleza.** Apirilak 11, 21:00etan. Areetako Andres Isasi

musika-eskolan. 2,90 euro.

► **Aviones.** Apirilak 13, 17:00etan. Andres Isasin. 2,10 euro.

► **Haur Zinema jardunaldiak.** Apirilaren 22tik 25era, 17:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 2,10 euro.

ERANDIO

► **Caminando entre dinosaurios + A proposito de Llewyn Davis.**

Apirilak 12, 17:00etan eta 20:00etan. Astrabuduko kultur etxean. 2 euro.

LEIOA

► **De tal padre tal hijo.** Apirilak 15, 20:00etan. Kultur Leioan. 2,5 euro.

► **Alabama Monroe.** Apirilak 22, 20:00etan. Kultur Leioan. 2,5 euro.

BERANGO

► **Gravity** Apirilak 19, 19:00etan. Berango Antzokian. Doan.

► **Jelly T. Tarzan eskasa.** Apirilak 20, 18:00etan. Berango Antzokian.

SOPELA

► **Un asunto real.** Apirilak 24, 18:00etan. Kurtzion. Doan.

BARRIKA

► **El secreto del libro de Kells.** Apirilak 25, 18:00etan. Ander Deuna aretoan.

BESTEAK

GETXO

► **Hitzaldia: La enigmatica Turandot.** Apirilak 10, 19:00etan.

Andres Isasi musika-eskolan. Doan.

► **Literatur solasaldia: La vida de las mujeres (Alice Munroe).** Apirilak 24, 19:45ean. Algotako kasinoan.

URDULIZ

► **Hitzaldia: Uribe Kostako bertsolaritza (Fredí Paia).** Apirilak 24, 20:00etan. Kultur etxean.

[albuma]



Gure esku dago

“Nazioa gara. Erabakitzeko eskubidea dugu. Herritarron garaia da”. Milaka lagun batu dira hiru oinarri horiek dituen Gure Esku Dago ekimenera: Euskal Herrian erabakitzeko eskubidearen aldeko dinamika herritarrera. Uribe Kostako hainbat herritan batzordeak daude, eta zenbait ekitaldi gauzatu dituzte daborduko, barbarako irudiotan Gorliz, Erandio, Sopela, Leioa, Lemoiz eta Getxokoak (eskualdeko beste herri batzuetan ere badira batzordeak).

Argazkiak: **Uribe Kostako Gure Esku Dago dinamikako hainbat batzorde**





Titan garabia

Arriluze kaian

XIX. mende amaieran eraikitzen hasi ziren Arriluzeko kaia, Getxoko udalerrian, Ereaga hondartzaren eta Algortako portu zaharraren artean, Punta Begoña muturrean. Titan garabia erabili zuten lanotarako: 1896tik 1903ra lan egin zuen eta L. Coiseau Fils & Felix Allard enpresak ekarri zuen, Bilboko Portuko Obretarako Batzordeak eskatuta, hain zuzen ere, Bilboko kanpoko portua eraikitzeko. Obra zati bitan egin zuten: dikea eta kaia; azken hori sendotzeko 60 tonako blokeak mugitu zituen Titanek (garabiak 270 tona pisatzen zuen). Eraitza 1.148 metro luzeko kaia izan zen, muturrean itsasargia: 1904an isiotu zuten bere argi gorria. Titan garabia 1972an eraitsi zuten. Haren ordean Angel Cañadaren zeramikazko murala dago gaur egun, Titanen oroigarri.

GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA

[berbetan]

Ainhoa Malaxetxebarria Unzetabarrenetxea (Bilbo, 1971) txiki-txikitatik gorlizarra. Arkitektoa. Gaur egun EHBilduko zinegotzi Gorlizen. Bizkaiko Haize Berria elkarteko taldekide da. Haize Berria “*genero indarkeria bizi izan duten emakumeek sortutako kolektiboa da; eta helburu du: indarkeria edo bortizkeria jasan duten edozein emakumezkoei euren laguntza eta babesa eskaintzea*”. Harremanetarako: www.facebook.com/Asociacion.HAIZE.BERRIA.Elkartea/info edo haizeberria@live.com

Ainhoa Malaxetxebarria

“**Lortu leike**”, lortu du

Testua: **I. Sagaminaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Zein da Haize Berriaren helburua, egitekoa eta jarduna?

—Haize Berria orain dela gitxi gora-behera lauzpabost urte sortu zen. Eusko Jaurlaritzak proiektu bat ipini zuen martxan, gai honi buruz apurtxo bat aztertu gura zuten; eta horretarako hainbat emakume batu gintuzten, kontu honi buruz galdetzeko, gure iritziak ezagutzeko, zer egin litekeen, zer ez... Batzar batzuk egin genituen, eta horiek amaitu eta gero konturatu ginen hutsune batzuk zegoela, eta instituzioek ezingo lituzketela bete. Orduan, gure artean batu eta Haize Berria sortu genuen. Batzuek lehenagotik alkar ezagutzen genuen, terapian-eta batera egon ginelako, eta Jaurlaritzako tailer honetan barriro alkar topatu genuen, eta elkarte sortzea erabaki genuen. Zergatik? Konturatu ginelako, barbarako: prozesu honetatik urtetzeko momentu horretan emakumeak oso galduta sentitzen garela, emozionalki eta abar oso txarto gare, eta galduta egoten gara, eta normalean ez dakigu nora joan; joaten bagara ere, sentitzen dogu atez ate gabiltzala, eta ate ho-

rretan ez dagoela enpatiarik. Normala da, instituzioetan ezin liteke enpatia hori topatu... Orduan, esparru horretan sartu nahi genuen, hau da: prozesu honetan hastekotan den norbait gurekin harremanetan jar liteke eta gurekin, eskua emonda, joango ginatke leku batetik bestera; ate asko jo behar ditugu: alde psikologikoa, umeak, kasu bakoitza ezberdina da... Kontua hori egotea da, enpatia hori momentu horretan oso beharrezkoa da. —Bestelako ekimenik egiten duzue?

“Lehenengo-lehenengo, entzun eta entzun, berba egin, utzi berba egiten, ataratzen... Besarkada bat...”

—Enpatia hori eskaintzeaz gainera, gure egitekoa tailerrak-edo eskaintzea ere bada; Jaurlaritzako tailerrak amaitu eta gero, eskoletan-eta lekukotzak emoten hasi ginen. Orain eskoletan ez da hori egiten, batzuek pentsatzen ei dute ez dela ona... Baina, beno, norbaitek gura izanez gero, eskatzen badigu, tailer moduko bat prest

dugu, gure lekukotza emoteko. Guk pentsatzen dugu oso ona dala jendeak jakitea hau zer dan. Normalean, zehazki, ez dakigu zer den emakumeenganako indarkeria hau... Beti pentsatzen dugu dela kolpeak emotea, edo hiltzea... Horretariko gauzak, bakarrik. Baina, lehenagotik, beste gauza eta egoera asko bizi ditugu: tratatu txar psikologikoak... Horiak, normalean, jendeak ez ditu ulertzen edo ezagutzen. Orduan, gure lekukotzen bidez, jendearengana heldu nahi dugu.

—Lekukotza emotea, bizitakoa barriro kontatu, benetan gogorra izan behar du. —Bai; hurrengo lau egunetan edo apurtxo bat nahastuta egoten gara, bai. Baina, hala ere, pertsona bat entzuten baldin badugu eta hortik zer edo zer pizten bada, eta pausoak emoten hasten bada, niretzat, asko baino gehiago da horrekin...



—**Zeintzuk dira zuekaz hartuemonetan ipinteko bideak?**

—Facebook orrialde bat eta helbide elektroniko bat dauzkagu [elkarrizketaren sarreran adierazitakoak]; horra edonork idatz eta jartzen duguna irakur dezake. Oraindino telefonorik ez daukagu. Mezu-ei erantzungo diegu. Bestalde, asko, ezagunen bitartez, ahoz aho entzun, ezagutu gaituztelako etortzen dira.

—Aipatu duzu gizarteak ez dituela onartzen, ulertzen, antzematen tratu txar psikologikoak, kontrol-egoerak... ez dela horietaz jabetzen. Hori azaltzeko, ulertarazteko, ikusarazteko, kontra egiteko, zer?

—Guk lantzen duguna hori da: gure esperientzia azaltzea, bizi izan duguna kontatzea... Emakume asko gara gauza berdintsuak sentitu ditugunak, agian batzuek ez hainbesterainoko, baina... Eta bai, gero, jabekuntza ere lantzen dugu, emakumearen jabetzea: tailertxo batzuk egiten ditugu horretarako, hizketaldiak, norbait etortzen da gauzak azaltzeko, gure artean berbetan... Facebook bidez egiten doguz danak; gero telefonoa, txata...

—**Kontrol egoera, tratu txar psikologikoak zein fisikoak jasan dituen lagun, lanean, ezagun bati laguntzeko, berak hori aitortzeko lehenengo pausoa egin badu, zelan lagun diezaiokegu? Zelan hurbil gaitezke egoera hori bizi duten emakumeengana? Zein jokabide edo jarrera izan beharko gentiuzke?**

—Lehenengo, entzun, asko eta luze entzun. Entzun, utzi berbetan, utzi atera dezan. Kontatzera etorri bada, jada nahikoa da. Entzun egin behar zaio. Adibidez: guk badakigu norbait zerbait bizitzen ari dela, bada pertsona honekin egon egon behar dugu, askotan, berak konfiantza hartu arte hori kontatzeko; ez da erraza halakoak kontatzea. Gero, gu ere horretarako gaude; ez da gauza bera halakorik bizi izan ez duen bati kontatzea, familiari kontatzea, ala egoera hori bizi izan duen bati kontatzea. Batzuetan errazagoa da ezezagun bati kontatzea; eta gainera, hau bizi

izan badu, errazagoa izan ohi da berari kontatzea. Lotsa hori daukagu barrutik. Beraz, lehenengo-lehenengo, entzun eta entzun, berba egin, atara... Besarkada bat. Besarkada batek daukan indarra!!! Bizitza honetan edozertarako eta edonoiz da ona, baina halakoetan... Gero, pertsona horrekin hainbat lekutara joan, horretan lagundu: gizarte zerbitzueta hurbiltzen, edo psi-

“Askotan, edo beti, entzuten dugu: “salatu, salatu...”. Bai, baina kontuz! Momentu egokiena ere topatu...”

kologo batengana joatean... Eskutik joatea, bakarrik ez utzi.

—**Berak ez badu pauso hori emon gura, zelan lagundu? Zer ez genuke egin behar?**

—Kasu bakoitza ezberdina da. Askotan, edo beti, entzuten dugu: *“salatu, salatu, salatu...”*. Bai, baina kontuz! Nik ez dut esaten ez salatzeko, hori argi lotu dadila; salatu egin behar da, baina momentu egokiena ere topatu behar da. Adib.: hemen banago eta badakit lagun bat edo halako zerbait bizitzen ari dela... beragaz egon! Sentitu dezala ez dagoela bakarrik. Lehenengo pausoa berak emon behar du. Kasuak eta kasuak daude. Ikusten badugu egoera larria dela, bada, zuzenean salatu, hori bai. Baina bizi duen momentuaren arabera, gauza bat ala bestea egin beharko dugu. Goiko pisuan kristoren kolpeak, oi-

“Lortu liteke horretatik urtetea, mezu hori bidali behar dugu: lortu leike! Bizitza, haize berria dago beste aldean”

huak entzuten baditut, bada hori bai, salatu egin behar dut, momentuan, noski! Baina ez bagaude puntu horretan, beste gauza bat baldin bada, printzipioz pertsona horregaz egon, lagundu begitxuak zabaltzen, tailerretara joaten, ez utzi etxean gelditzen, ez utzi hor itxita lotzen... Saiatu zulo horretatik urtetzen laguntzen. Hor

sartuta moduan egoten gara, begiak itxita... Ez dogu ikusten, edo ikusten dogu baina ez dogu ikusi nahi... Errazagoa emoten du hor geratzea, hori uste dogu... Eta ez da egia, errazagoa da urtetzea! Danatariko beldurak izaten ditugu, kontuan hartu gure autoestima lurretik daukagula, ez gara nor sentitzen... *“Zer pentsatuko dute besteek? Zer pentsatuko du familiak?”*

Guk pentsatzen dugu gure harremanean ez dugula bidea lortu, ez gabiltzala dana ondo egiten, milaka eta milaka kontu, eta beldur... Edonorentzat edozein egoeratan norberaren barruari aurre egitea ez da erraza, bada halakoetan pentsa...

—**Aurre egin dion eredu izanik, urtetzeko, aurre egiteko bideak zeintzuk litezke?**

—Niretzat garrantzitsuena laguntza psikologikoa izan da. Prozesu hori amaitu dut, eta orain gauzak beste modu batera ikusten ditut. Momentu honetan burruka horretan hasi beharko banu, gauzak beste modu batera egingo nituzke. Baina ulertu behar dugu dana batera hasten dugula, kasuan kasu: dibortzioa, seme-alabak izanez gero, prozesu psikologikoa e.a. Prozesu psikologiko hori gu barriro jaiotzeko, gu ilunpe horretatik urtetzeko... Eta hori

dana eta batera, kristoren nahaste-borras- tea da. Horregatik, garrantzitsuena laguntza psikologikoa da; eta beharrezkoa, gainera, dana aurrera ateratzeko. Bestela, oso- oso zaila... Eta hala ere, bidea oso zaila da; gauza asko dare... Nire kasuan, oraindino, motxila geratzen da. Ez daukat seme-alabarik, baina beste batzuek bai, eta horiek

betiko daude hor; eta burruka, agian... ez da inoiz amaitzen. Baina, gu, barrutik, pertsona moduan, aldatu egiten garenez... beste bizitza bat dugu, beste bizitza bat dago hor kanpoan, eta lortu liteke beldur horretatik urtetzea, lortu leike! Eta mezu hori bidali behar dugu: lortu leike! Bizitza barri bat dago beste aldean, haize berria dago beste aldean! Prozesua ez da erraza,

“Gizartea aldatu behar dogu, eta gure buruak. Oraindino gizarte matxista batean bizi gare... Ez da erraza”

baina barruan geratzea okerragoa eta zailagoa da, eta arriskutsuagoa ere bai!

—**Gizartearen konpromisoa, mobilizazioak, salaketak... inoiz ez da nahikoa. Zer beharko litzateke?**

—Gizartea aldatzea! Oso zaila da... Gizartea aldatu behar dogu, gu geuk aldatu behar ditugu gure buruak. Oraindino gizarte matxista batean bizi gare; askotan ez dogu ikusten, ez gara konturatzen... Askotan emakumeok gara matxismo horren ereduak onartzen ditugunak. Lan demasa dugu

dana aldatzeko. Gizartea aldatu behar dogu. Emakumeak jabetu egin behar gara, hori ez da erraza; baina, gizonak ere dagozen eskailera-mailatik jaitsi egin behar dute, eta nik uste dot hori zailagoa dela oraindino. Berdintasun hori lortu arte...

—**Askotan entzuten den guzurra: feminista bati ez zaio halakorik gertatzen.**

—Hau edonori gerta lekiok, edonori.

—**Belaunaldi gazteetan tratu txar egoera edo perfil ezberdinak antzematen dituzue? Sakelakoak zelatatzea, facebook-a begiratzea, janzkera baldintzatzea e.a.**

—Instituzioakaz edo psikologoakaz berba egin dugunean, esan digute gero eta jende gazte gehiago agertzen dela indarkeria egoera horregaz. Horrez gainera, emakume gazteengandik asko entzuten da *“onak izan behar dugu etxean, onak kalean, onak lanean...”*. Berdintasuna lortzeko prozesua ez da erraza, orduan emakume asko kan-

tsata dagoz ere bai... Eta horrek batzuetan atzera egitera eroaten gaitu, nire ustez e! Ez dut esan gura atzera egin dugunik, baina gauzak ez doaz onera oraindino, edo onera badoaz oso-oso astiro... Asko dugu lantzeko, hasi umeetatik, gazteetik... Gazteekin berba asko egin behar dugu, eurek ere ulertzeko zer den hau dan hau. Eskoletan egon gara, lehen esan legez, gure historia kontatzen... Oso gogorra izan da umeen aurpegiak ikustea, askotan eurek ere sentitu dituztelako horretariko gauzak. Oso gogorra izaten da, bai. Eta hori asko landu egin behar da, ez badogu hasieratik lantzen...

—**Zer iritzi duzu hedabideen jardunari? Zelan jorratu beharko lukete...**

—Guri gertatzen jaku, zerbait gertatzen denean, orainsu Mungiakoa esaterako, komunikabide guztiek deitzen duzuela; edo Martxoaren 8an, edo Azaroaren 25aren bueltan, bardin. Baina, gero, urtean zehar ezer ere ez! Honi buruz ez da tutik esaten! Eta nik, gehiago behar dut. Egunero zerbait. Badakit, ez da erraza, gizartea aldatu behar dogu eta hori apurka egingo dogu... Baina, lortu leike! ○

Bide judiziala

—**Bide eta ekinbide judizialen kontua, zelan alda liteke?**

—Danari buelta emon, dana buruz behe- ra jarriko nuke nik! Hainbeste gauza dira aldatu beharkoak! Hainbeste kasu eta egoera ezberdin ezagutzen dodaz... Ez nago sistema horretan, ez dakit zelan alda litekeen, baina momentu honetan ez dagoela ondo, ziur! Hainbat gauza “araro” ikusi ditugu... Adib.: epai-autoetan kontraesanak, epaitegi ezberdinak direnez, eta euren artean ez duten berba egiten, batzuetan bateri kasu ala besteari?! Edo epaiketa azkarra delakoa ipini dute, gauza ona delakoan... Ez dakit, baina nire kasuan behintzat... Epaiketa azkar hori eduki nuenean, nik pentsatzen nuen neu nintzela akusatua, ni nintzela salatu zutena! Ez nekien zer egiten nuen han! Nik ez

nuen salaketarik inoiz jarri. Beldurra izan nuen... Baina, Ertzaintzak jarri zuen salaketa, nire izenean. Horretaz, gerora konturatu nintzen. Momentu hartan, nire gizona zenak ere nire kontrako salaketa jarri zuen. Pare bat egun pasa eta gero epaiketa; nik uste izan nuen epaiketa hori berak ni salatu ninduelako zala. Nik ez nekien ertzainak salaketa jarri zuenik nire izenean... Orain, gu (Haize Berria) halako kontuetan ere sartzen gara. Ez dakit ezta zer gertatu zen ere. Gogoan dudana: negarrez egon nintzen epaiketa osoan, eskatzen *“esan egiozue ni bakean uzteko; mesedez esan egiozue bakean uzteko...”*. Epaillea (emakumezkoa), hobe ez kontatzea... Eta nik epaiketa horretatik ez nuen ezer ere lortu.

Bestalde, hau kontatu gura nuke: proze-

su psikologikoa egiten nenbilen bitartean, behin, lagun batek galdetu zidan nire bizitzan zeintzuk ziren pertsona garrantzitsuenak, izenakaz zerrenda bat osatzeko. Eta pentsatu nituen... baina zerrenda horretan ez zegoen nire izena!! Neuk emakumeei apurtxo bat eurengan pentsatzeko eskatzen diet, geure burua zaintzeko... Emoten du emakumeok barruan halako txip bat edo dugula mundua salbatzeko, mundu guztia- ri laguntzeko prest gagozala, beti besteengan pentsatzen... Askotan geure burua zaintzea ahaztu egiten dogu. Eta hori oso garrantzitsua da. Norbaiti hitz honeek entzun eta gero zerbait badatorkio burura, jarri dadila gurekin, beste talde batekin edo norbaitekin harremanetan; baina pentsa dezatela hori buruz, ez laga hor.



Samien herrian

Elurraren zuria, basoen beltza eta aurora borealen kolore distiratsuak ekarri dituzte lau abenturazalek, nondik eta Laponiatik. Finlandiako iparraldean dagoen Laponian zeharkaldia egin dute eskiz eta irudi ederrak jaso dituzte euren kamerek. Orriotara ekarri dituzte, UK-ko irakurleak ere goza dezan abentura zoragarri haregaz. Jakin gura baduzu zelan lo egin zuten eta zelan moldatu ziren Europako ingururik hotzenean, elkarrizketa luzea daukazu Leioako orrietan: begirada bat emon!

Argazkiak: **L. Alvarez, G. Martinez de la Hidalga, S. Gonzalez eta K. Karakuel**







Berangoko kostaldearen bila

Berangoribera izena duen lekua bazela frogatu gura du Iñaki Arestik

Iñaki Arestik Berangok kostaldea duela aipatzen dituen hainbat dokumentu batu ditu. Bere ustetan, Berangoribera delakoa Getxoko Barinatxe inguruetan dago, eta hala izanez gero, frogatuko du “Berangok iparraldean Inglaterragaz muga egiten duela”.

“Berango linda al norte con Inglaterra”. Hori da Alberto Diez Saiz historialariak idatzitako “Berango” liburuak emoten duen datuetako bat.

Horren harira, Iñaki Aresti Escudero bere udalerria den Berangoko kostaldeari buruzko informazioa batzeari ekin zion, udalerririk hondartza duela ziurtatzeko asmoz. “Berangok iparraldean Inglaterragaz muga egiten bazuen, horrek esan gura du Berangok kostaldea izan zuela”, dio Arestik.

Gaur egun buru-belarri dabil udalerririk galdu zuen kostalde zatia ikertzen: “dokumentu ugari daude Berangok kosta zati bat izan zuela agertzen dutenak: Berangoribera izena duena”.

Horri lotuta, inguruko arrantzaleen ohiturak gogoratzen ditu Arestik: “jende ugari Sopelara, Barrikara zein Armintzara joaten zen arrantza egitera, baina Larra-basterrako lagunak Berangoribera izeneko leku batera zihoazela esaten zuten”.

Berangoko muga bila
Lagun baten laguntzagaz Sopela eta Berango arteko mugak hartzen dituen mugalaririk guztien txostena aurkitu du Arestik, 1999. urtean idatzitakoa. Hala, Arestiren ustetan, Sopelak Berangogaz dituen mugak ondo daude, “Gorrondatxe hondartza,



Berangoriberaren bila dabil buru-belarri azkenaldian Iñaki Aresti

askok Azkorri izenez ezagutzen dutena, Getxokoa da; ondoan, Barinatxe hondartza dago, eta hori Getxoren eta Sopelaren artean banatuta dago. Nire ustetan, hondartza horretako zati bat Berangokoa da, Berango-

Ez da erraza historialaria ez den batentzat dokumentu guztiak batzea

ribera izena duena. Sopelako mugak ondo daude, beraz, Getxoko partean egon behar du Berangoko zatiak”.

Horrez gainera, berangoztarraren arabera, Berangoko hondartzara joateko bideren batek egon behar zuen, horrenbestez, “Berango eta hondartzaren arteko lur zati batek ere Berangokoa izan behar du”. Hori dela-eta, Getxoko eta Berangoko muga txostenen bila dabil Aresti,

baina ez da erraza lortu beharreko dokumentu guztiak lortzea, “historialari baten-tzat erraza izango zen, baina niretzat ia ezinezkoa da. Hala ere, lortuko dut”.

Larrondo eta lurrunontzia
Mugak alde batera utzita, Arestik hainbat dokumentu eta kontakizun batu ditu Berangoren kostaldea aipatzen dituztenak. Mendi izeneko parajea da Berangoko iparraldean dagoen azken lekua, eta bertan egiten du muga iparraldean Getxogaz eta Sopelagaz. Inguru horretan Larrondo izena duen baserria dago, eta Arestik bertokoakaz egin du berba: “83 urte dituzte, eta Berangoriberaren inguruan galdetu nirenean, eurek baietz esan zidaten. Oinez joaten zirela Larrondotik Barinatxe hondartzako goiko partean dagoen gotorlekura arte, eta handik behera jaisten zirela bide batetik”.



Barinatxe hondartzaren zati bat Berangori dagokiola uste da

Horregaz batera, euren arbasoetako baten historia jakinarazi diote Arestiri, Pedro Izaguirre izena zuena. “Hori Pedro ‘Mendi’ ezizenez ezagutzen zuten inguruan, Mendi parajearen ondoan bizi zelako. Hura 1884an jaio zen, eta 1920 inguruan, itsasontzi bat Barinatxe hondartzan lehorreratu zenean, hura hara joan zen txatar bila. Bertan zegoela, dinamita kartutxo batenk eztanda egin zion eskuan, eta horren alabak eta ilobak azaldu zidatenez, etxera ozta-ozta iritsi zen bizitzera salbatuz”.

Hasiera batean, kontakizun horrek ez

Hainbat dokumentu historikok Berangoko kostaldea aipatzen dute

luke ezer frogatuko, baina Arestik beste dokumentu batez egin du topo, non gertaera horregaz lotura izanda, Berangoko kostaldea aipatzen duen. Idazki horien arabera, 1920an Bilboko portutik bapora bat irteten ari zela, alemaniar urpeko baten torpedo bat jaurti zuen horren kontra. Hala, lurrunontzia Berangoko kostaldean lehorreratu zela azaldu du Arestik. Oraingo dokumentu horren kopiarik ez duela



Arestiren ustetan, Mendi parajea ez da Berangoko iparraldeko muga

lur, berangoztarrak azaltzeko eskatu zion ezagunari. Horren arabera, zerbitzuan zegoela, gizon bat itsasoan ito zen, eta horren gorpuaren bila zebiltzan. Hilotza Getxoko kostaldean agertzen bazen, Getxoko Bake Epaitegiak hartuko luke ardura; eta Berangokoan agertuko balitz, epaite-

Berangoribera leku txikia izan liteke, 20 toalla baino ez hartzeko modukoa

girik ez zuenez, haiek hartu beharko lukete ardura. “Hori azaldu zidanean postu egin nintzen, pista gehiago eman zizkidalako gaiaren inguruan”, azaldu du berangoztarrak.

Froga horien guztien aurrean, gero eta argitasun gehiagorik ikusten du Arestik Berangoren kostaldearen existentzia. Hala ere, badaki asko dagoela egiteko: “Alberto Diez historialariagaz harremanetan jarri gura dut, ea bion artean kostaldearen iza-tea frogatzen dugun”.

Arestik jakinarazi duenez, bere aurreikuspenen arabera behintzat, Berangoribera ez da oso handia izango, “20 toalla jar-tzeko modukoa”.



BETIKO

IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartaren Leioako Ikastola bakarra



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

Zabala kaleko 9. zenbakira

MUGITU GARA

GARRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Zabala 9

ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Dokumental-eskaintza

Bilbo dokumentalen sarean sartu da, **ekaina bitarteko** egitaraua prest dute



Rent a family Inc. dokumentala, hilaren 24an emongo dute

Parallel40 dokumentalen zabalkundean espezializatutako banaketa-etxeak urteak daroaz Espainia, Txile, Argentina eta Kolonbiako 53 aretok osatutako sarean “*nazioarteko ospea lortu duen film dokumental luze baten aldi bereko estreinaldia*” eskaintzen hilean behin. Aipatutako banaketa-etxeak eta DocsBarcelona Nazioarteko Dokumental Jaialdiak Atera Films-egaz erdietsitako lankidetzari esker, orain Bilbo ere sare horretako kide da. Zikloa Hileko Dokumentala izendatu dute, eta ekimenaren arduradun bilbotarra ZINEBI izango da.

Hala, oraingoz hileko azken eguenean Bilboko Coliseo Zirkuituko Multizine aretoetan “*generoaren zaleei nazioarteko beste jaialdi batzuetan aukeratu edo saritu, baina gerora ia-ia banaketa komertzialik ez duten lanez gozatzeko aukera*” eskainiko die ziklo horrek.

Oro har, zientzia, ekonomia edota gizarte arloko gaurkotasun handiko gaiak jorratzen dituzten lanak aurkeztuko

ditu ekimenak, eta ekaina bitarteko egitaraua behintzat aurreratu dute. Tarte horretan emongo dituzten dokumentalen gaiak beren-beregi etxebizitza-merkatuaren krisia, genetikoki eraldatutako elikagaien segurtasuna eta LHC partikula-azeleragailuaren ingurukoak izango dira; ondorengoak hitzorduak eta lanak:

«Apirilaren 24an, maiatzaren 29an eta ekainaren 26an dira hurrengo hitzorduak»

apirilaren 24an, *Familia bat alokatu, S.A. (Rent a family Inc; Kaspar Astrup Schroder)*; maiatzaren 29an *GMO: Genetikoki Eraldatutako Organismoa* (Jeremy Seifery); eta ekainaren 26an *Particle Fever* (Mark Levinson). Lanok itzulita (euskarara ez dugu uste) edo jatorrizko bertsioan azpiztituluakaz (euskarazkoak ez dugu uste) eskainiko dituzten ez dute zehaztu oraindino. Sarrera: 3,70 euro. ○

Info+: www.zinebi.com

Jazzaldiko taldeak

Natalia Dicenta, Jack De Johnette eta Michel Camilo momentuz kartel buru



Natalia Dicentak uztailaren 2an joko duela adierazten du egitarau aurrerapenak

Getxoko Jazzaldiak XXXVIII. ekitaldia beteko du uztailaren 2tik 5era. Egitaraua oraindino itxi ez badute ere, kartel-buru izango dira, besteak beste: uztailaren 2an Natalia Dicenta abeslari eta aktorea; hilaren 3an Jack De Johnette eskarmentu handiko perkusionista estatubatuarra eta uztailaren 5ean, Michel Camilo piano-jotzaile dominikarra.

Gainera, jazzaldiaren harira antolatzen den talde-lehiaketako finalean lehiatuko direnen izenak ere ezagutarazi dituzte; oro har, Austrian, Holandan, Alemanian eta Italian sortutako taldeen arteko

norgehiagoka izango da. Etorkizuneko artista barriak aurkitzea eta ezagutzera emotea helburu duen Getxoko jazz talde-lehiaketara 17 herritako 69 talde aurkeztu dira aurten, epaimahaiak finalerako lau aukeratu ditu: Lukas Gabric Group (Austria, Hungaria eta Alemania), Liya Grigoryan Trio (Holanda), Ylatic algo Quintet (Alemania eta Errusia) eta Massimax Project (Italia eta Suedia) hirukotea. Irabazlak 3.750 euro jasoko dituzte, eta zuzeneko diskoa ere grabatuko dute; bigarrenek 1.500 euro, eta bakarlari onenak 750 euro eskuratuko ditu. ○

kontzertuak > xurruten

Gorlizen bada musika-eskaintza gogorrik! Halakoak gogoko izanez gero, Xurruteko egitarauari begiradaxoa botatzeko proposamena luzatzen dizugu, eskualdeko taldeak entzuteko aukera egongo da, eta Aste Santu bitartean baduzu zer aukeratu: hilaren 11n, bari-kua, (21:00; doan) Marmoka Baltzak eta Bloque H taldeen kontzertua izango da; hurrengo egunean (hilak 12; 21:00, 5 euro) Devil Vow taldeak eta Luis Vilek bere La Mala Crianza taldeagaz joko dute; apirilaren 13an, domeka (20:00; 5 euro) Pettiren emanaldia izango da; eta apirilaren 16an, eguaztena (jaiegun bezpera; 20:00; 5 euro) Prisma Circus, Downtown Brigade eta The Wizard taldeak igoko dira oholtzara.

Info+: www.xurrut.com

lehiaketa > EHrZ, arin ibili!

EHZ jaialdiaren eta ekimenaren harira, EHrZ lehiaketa martxan da. Bertan parte hartu gura duten taldeek arin ibili beharko dute, izena-emoteko epea hilaren 15ean amaituko da-eta. Aurten deialdia nazioartera zabaldu badute ere, antolatzaileen esanetan, “*moldeak pixka bat mugitu dira, baina helburu berdina mantentzen dugu: artista berriengana joaitea, festibalen produzitzeko posibilitatea eskaintzeko. EHZ-ren tematikari oihartzun egiteko kultura minorizatuetao artistak bultzatu nahi ditugu. Kultura minorizatuetao ari garenean, bizi diren kulturak aipu ditugu. Gaur egun, defenditzeko kuadro finkorik ez duten kulturak. Kultur dominanteek itotzen eta legemitate osoz pribatzen dituztenak*”.

Info+: ehz-festibala.eu/ehrz

diskoak

Bakarrrik eta libre...
Batzuen Artean
Elkar



Bakarrrik eta libre. Imanol Urbietaren kantak lana kale-ratu zen Zarauzko Udalaren ekimenez. Euren modura moldatuz, Imanol Urbietaren 14 kantu abestu dituzte, besteak beste: Eñaut Elorrieta, Su ta Gar, F. Muguruza, Petti, Joseba Irazoki, Lou Topet, Split 77+Aiora Renteria, Anari+Mursego, Matxura, Makala, Pirritx, Porrotx eta Mari-motots eta Andoni Egañak.

Abuztuak 6
Hibakusha
Autoekoizpena



Tears From Hiroshima ahots barik lotu eta Silvia Guillenen batzeagaz sortu da, ke haie-tatik, Hibakusha rock-metal alternatiboko talde nafarra, lotura eginez: Hiroshimako bonbardaketa 1945ko abuztuaren 6an izan zen, data horregaz izendatu dute diskoa, taldea ere orduan jaio baitzen; eta izena, bizirik dirauten “*bonbardatutako lagunei*” deritzelako ‘Hibakusha’.

Therapy
Xaiko
Baga Biga



Agurainen egoitza duen taldearen izenak eta diskoaren izenburuak Ramones taldearen “Psycho Therapy” kantu ezaguna ekarri gura dute gogora. Triki-punk-ska doinu-ko 14 abestik osatzen dute Xabi Arakama (Triki-zio, Ze Esatekl, Obrint Pas) eta David “Aguayiko” (Kaotiko) taldeburu dituen zortzikotearen estreinako lana. Dagoeneko ekin diote aurkezpen-birari.



Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkeztan baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Lehiaketa martxan

Ni gazte nintzenean... narrazio-lehiaketara lanak bidal daitezke **hilaren 25era arte**

Leioako Udaleko Kultura eta Gazteria Sailak antolatzen duen *Ni gazte nintzenean...* narrazio-lehiaketak XV. ekitaldia betekoz du aurten. Gaztetako oroitzapenak literarioki jasotzea helburu duen lehiaketara bere memoriak bidali gura dituenak apirilaren 25a baino lehenago egin beharko du.

“Zenbat aldiz gogoratu dituzu ume izan zineneko jolasak? Zenbat bider kontatu dituzu gazte denborako jaien oroitzapenak? Hartu papera eta boligrafoa eta hasi gogoratzen oroimenean dituzun aparteko uneak, une ahaztezinak” horiek guztiak eta gehiago gogoan, idatziez gehienez bost orrialdeko luzera izan beharko dute, eta, ohi den legez, saritu bakoak, jatorrizkoak eta argitaratu bakoak izan beharko

«Lanak Kultur Leioan aurkeztu beharko dituzue; zuzenean ala postaz»

dute. Parte-hartzaileek gehienez narrazio bi aurkez ditzakete, euskaraz edo gaztelaniaz, eta adinaren arabera bost kategoriatako batean parte hartuko dute: 18 urtera artekoek A kategorian, 19 urtetik 30 urtera bitartekoek B kategorian, 31 urtetik 55 urterakoek C kategorian, eta hortik gorakoek D kategorian.

liburuak



Hobe kontatzen ez...
Batzen artean
Pasazite Inportazioko lib.

Literatura katalan garaikideko ipuin-antologia da *Hobe kontatzen ez badidazu*. Bost ipuingileren (Quim Monzó, Imma Monzó, Sergi Pàmies, Empar Moliner eta Francesc Seres) hamalau ipuinek, eta ipuin moduko hitzaurre batek osatzen dute Gerardo Markuletak euskaratu duen lana.



XV. Ni Gazte nintzenean lehiaketako kartela

Lanen hiru kopia bidali beharko dituzue; “idazlanek izenburua edo izengoitia bakarrik eduki beharko dute, egilea identifikatzea ezarritako xehetasun barik; jatorrizkoak gaz batera, eta gutun itxian, barruan egilearen datuak (izena, abizenak, helbidea, adina, telefonoa eta, edukitzekotan, posta elektronikoko helbidea) jasoko dituen orria sartuko da; kanpoaldean idazlanaren izenburua edo izengoitia eta zein kategoriari dagokion jarriko da”. Hori dana, Kultur Leioan (Jose Ramon Aketxe plaza 11; 48940 Leioa, Bizkaia) zuzenean ala postaz bidalita aurkeztu beharko duzue. ○

Info+: www.kulturleioa.com



Inon ez, inoiz ez
Iban Zaldúa Gonzalez
Elkar

Donostian jaio bazen ere, hamaika urtez Gasteizen bizi den idazlearen ia 300 orrialdeko ipuin-liburu barria 38 ipuinek osatzen dute, fantastikoak eta errealistak, metaliterarioak, egunerokotasunaren ifrentzua dutenak, azken boladak gure giro politikoa erretratatzeko dutenak e.a.

[kirola]

Pakea Getxo Bela-Eskola

Unai Basurkoren klubak kudeatuko du Aste Santutik aurrera **Getxo Bela-Eskola**



Pakea Getxo Bela-Eskola nabigazioan eta hezkuntzan eskarmentu handia duten kideek osatzen dute

Getxoko Udalak eta Unai Basurko itsasgizon profesionalaren Pakea Klubak akordioa sinatu dute Aste Santutik aurrera eta datozen lau urteetan erakunde horrek Udaleko Bela-Eskola kudeatzeko, Pakea Getxo Bela-Eskola izena hartuko duena.

Pakea Klubak eskarmentu handia du bela kirolean, eskifaia eta taldeen sorkuntzan eta trebakuntzan, nabigatzaileen prestakuntzan eta eskola-umeei zuzendutako ingurumen-hezkuntzako programetan. Talde hori nabigazioaren eta hezkuntzaren alorretan eskarmentu handia duten hainbat gazte euskaldunek osatzen dute. Izan ere, horietako gehienak Pakea Bizkaia belaontziko tripulazioko kide izan dira.

Imanol Landa Getxoko alkateak adierazi duenez, “*eskolaren proiektuak belaren artea ezagutzera ematea izango du ardatz nagusi, gure historia eta kulturaren alderdi garrantzitsu bezala aurkeztuz, baita edozein adinekorentzat kirol eta aisialdiko jarduerak erakargarri gisa*”. Gauzak horrela, udalerriko ikastetxeek egingo dituzten jar-

dueren artean belako nabigazioa bultzatuko dute. Bestalde, Unai Basurkok jakinarazi duenez, “*gure lan-talde osoarentzat erronka berri eta erakargarria da nabigazio-artearen transmititu ahal izatea, itsasoarekiko zaletasun eta errespetuarekin batera*”.

«8 urtetik gorako neska-mutilentzako ikastaroak egingo dituzte»

Eskolak oinarritzko lau zerbitzu eskainiko ditu eta Aste Santuan ekingo dio ibilbideari, 20 orduko ikastaro bereziakaz. Hori bi txandatan banatuta egongo dira: lehenengoa, apirilaren 17tik 20ra; eta bigarrena, apirilaren 21etik 25era. Hortik aurrera, astegunetako eta asteburuetako ikastaroak antolatuko dituzte. Udan, barriz, ikastaro bereziak eskainiko dituzte, eta eskariaren arabera, gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez emango dituzte. Eskolak, horrez gain, liburutegi nautikoa eta zineforuma ere izango ditu. ○

Info+: www.pakeagetxobelaeskola.com

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO




350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, S.L.



• MARKA GUZTIAK
• 24 ORDUTAN ERANTZUNA
• 3 HILABETKO GARANTIA
• 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
• IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA

Aitor Villanueva > Täby (Suedia)

“Bardintasun handiagoa dago sexu bien artean”

Aitor Villanueva erandioztarrak 16 urte zituela, Erandioko Ategorri institutuak elkartrukea antolatu zuen Estokolmoko Södra Latin institutuagaz, eta horrela ezagutu zuen Villanuevak Suedia. Estokolmogaz maitemindu zen, Euskal Herritik urteten zen lehen aldia zen eta argi ikusi ei zuen Suedia oso modernoa eta aurreratua zela. Bertako gizarteari eta ekonomiari buruz irakurri, eta erabaki zuen etorkizunean Suedian biziko zela: handik aurrera pauso guztiak bideratu zituen helburu horretara, eta, daborduko, 14 urte daroaz bertan; eta luzerako asmoz!



Oso gustura dabil Villanueva Suedian eta ondo balioztatzen ditu antolaketa-modua eta zerbitzu-sozialak.

Zer bisitatu eta zer ez galdu

Estokolmo uharte mordo baten gainean eraikita dago eta ura dago nonahi, Eskandinabiako Venezia esaten diote. Alde zaharra sekulakoa da, hiri isila eta garbia. VASA museoa: 1628. urtean hondoratutako untzi suediar bat dago: berreraiki zuten eta ikusgarria da. Djurgården parkea: Estokolmoko Central-Park, hiri erdian, itzela, museoz eta etxetxoz josita. Södermalm auzoa ere oso polita da.

Harritzeko modukoa

Musurik ez agurtzerakoan; eskua eskaintzen dute beti. Bestalde, oso zaila egi-ten zaie ezetz esatea: hamaika buelta emango dute eta deseroso sentituko dira, eta batzuetan ez dago argi ezetza den.

Behin ez zituen ñabardurak harrapatu eta baietza zela uste izan zuen; ezetza izan zen, ordea, eta kristorena jasan behar izan zuen. Sexu kontuetan gu baino irekiagoak dira: neska askok aurea hartzen du ligatzean. Eta eguzkiagaz eta beroagaz obsesioa daukate: argi-izpi kontsumitzaile obsesiboak dira, eta udabarrian suediarrez josita daude jesarleku, parke eta plazak, geldi-geldi eta gora begira: fotosintesia egiten baleude bezala... irudi oso bitxia. Oro har esan daiteke bardintasun handiagoa dagoela emakume eta gizonen artean, bai soldata aldetik, bai etxeko lanen aldetik. Ez da erabatekoa, baina gurea baino handiagoa bai.

Zer jan... eta edan

Gastronomia aldetik ez dago gauza handirik. Plater nazionala okela-bolak di-a, ahabi gorri saltsarekin. Arrainari dago-kionez, izokina eta sardinzarra. ○



Nor da

Nongoa
Erandiokoa

Adina
38 urte

Zertan dabil
Gaztelania eta ingelesa irakas-ten du Estokolmon, 10 eta 15 urte bitarteko ikasleei, baina ti-tulua ataratzen dabil 16 eta 18 urte bitartekoei ere irakasteko

Noiz arte
14 urte daroaz Suedian eta jubilatuta arte, behintzat, han lotzeko asmoa dauka

Non dago

Lurraldea
Suediako Erresuma

Azalera
449.964 kilometro koadro (%8,66 ura da)

Hiria
Täby
(Suedia hego-ekialdean)

Hiriko biztanleria
65.000 inguru

Hizkuntza
Suediera da hizkuntza nazionala, baina beste bost hizkuntzek ezagutza ofiziala daukate: sami, meankieli, finlandiera, romani eta yiddish hizkuntzak

Dirua
Koroa suediarra

Eduardo San Andres

Zientzia atala abiatu dugu, Jentilkoba atalagaz txandakatuko dena; hilean behin. Bertan agertuko diren testuak **Eduardo San Andres** matematika irakasle sopoloztarrak idatziko ditu; zientziaren eremu luze-zabalean murgilduko gaitu


Bidaiaak denboran zehar (I)

Robert Zemeckis zinema-zuzenda-riak 1985ean zuzendutako *Back to the future* film zoragarrian, prota-**gonistak, Marty McFly-k (Michael J. Fox)** denboraren makina bat **asmatu duen Doc deituriko zientzi-lari bitxi bat ezagutzen du. Makina horrek Delorean auto ikusgarri baten itxura dauka. Martyk iraga-nera bidaiaetzen du bere gurasoak nerabeak ziren garaira hain zuzen.**


Garai hartan bere gurasoak elkar ezagu-tzeko zorian zeuden, baina dena korapila-tzen da bere ama nerabea berarekin maite-mintzen denean. Martyren betebeharra be-re gurasoak elkarregaz maitemintzea izango da, begibistako denbora paradoxa bat ekidi-teko. (Etorkizunerako bueltako bidean arazo teknikoren bat edukiko dute Fluzo kondensadorea dela-eta).

Film honen argumentua oso deigarria da, baina, badauka inongo oinarri zientifi-korik? Posible da denboran bidaiaitzea? Ikus dezagun... Argi dago denok ari garela etor-kizunerantz bidaiaitzen, baina, erritmo bere-an egiten dugu guztiok? Galdera absurdoa da hau?

Izan bitez bi ahizpa biki, Nadia eta Joana. Biek 10 urte dituzte, eta Joanak ibi-lalditxo bat egitea erabakitzen du v abiadu-ra jakin batean, eta gero bere ahizparengana bueltatzen da.



Izan bedi *t* Nadiarentzat igaro den den-bora, eta *t'* Joanarentzat igaro dena Joana bidaiaitzen egon den bitartean. XII. men-



Albert Einstein

dean Isaac Newtonek planteatu zuen fisi-kak, baita zentzuak ere, bientzat denbora tarte berbera igaro dela, hau da:

$$t = t'$$

Baina 1905. urtean Albert Einstein-ek, be-re erlatibitatearen teoriaren markoan, bi den-bora tarte horien arteko lotura hain simplea ez zela aurkitu zuen. Beste modu batean esateko, denborak erritmo ezberdinean egiten du au-rrera norberaren abiaduraren arabera. Zenbat eta bizkorrago mugitzen zaren, denbora ordu-an eta motelago pasatzen da zuretzat. Eta t eta t' arteko harremana honako hau da:

$$t' = t \cdot \sqrt{1 - \left(\frac{v}{c}\right)^2}$$

Formula honetan v mugitzen ari dena-ren (Joana) abiadura da eta c = 300.000 km/s argiaren abiadura da (argi-izpi batek 300.000 kilometro egiten ditu segundo ba-tean!!!). Ikus dezagun zer eragin daukan t-ri biderkatzen dion gai arrotz horrek.

Joanak daukan abiadura “normala” baldin bada, hau da, c baino askoz eta askoz ere txikiagoa, orduan v/c gaia ia-ia zero izango da eta formulak *t = t'* itxura lasaigarria hartzen du, baina v handituz badoa c-rekin paregarri izan arte, orduan hasten da dibertimendua... kalkulagailua hartu:

Baldin eta *v* = 100.000 km/s (Joana oooooo bizkor doa) orduan (ordezkatu balioak formulan).

t' = *t* · 0,94, hau da, *t'* *t* -ren %94 da. Adibidez, Nadiarentzat 10 urte igaro badi-ra (*t*), Joanarentzat 10 · 0,94 = 9,4 urte (*t'*) igaro izan dira. Orain, Nadiak 20 urte ditu eta Joanak 19,4 urte (baina, ez ziren bikiak?)

Beste adibide bat, baldin eta *v* = 299.000 km/s bada, orduan *t'* = *t* · 0,08 orain *t'* *t* -ren %8 da. Nadiarentzat (eta Nadiarekin gelditu zen guztiarentzat) 100 urte igaro badi-ra, Joanarentzat 8 baino ez. Orain Joanak 18 urte ditu eta Nadiak 110 urte (bizirik badirau). Efektua Joanak 92 urte etorkizunera bidaiaitu dituela da (!!!)

Harrigarria dirudien arren, etorkizune-ra bidaiaitzea posible da, baina momentuz, efektu erlatibista hau nabaria izateko beha-rrezkoak diren abiadurak lortzeko teknolo-gia ez dugu eskuragarri.

Joanak berriro denboran atzera egin nahi duela erabaki du. Ibilbide berbera eta abiadura berberaz egitea erabakitzen du kontrako noranzkoan, baina horrela beste 92 urte aurrera bidaiaitzea baino ez du lor-tzen, efektua soilik abiaduraren arabera da-goelako, eta ez ibilbidearen arabera. Bada-go 184 urte etorkizunean. Izutzen ari da benetan. Bere garaira bueltatu nahi du. Zer egin dezake? Posible da iraganera ere bi-daiatzea? (izarrak behar izango ditugu!). Erantzuna hurrengo zenbakian... ○

Taberna eta jatetxe asko ditugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozatzeko has zaitezten.



portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE

Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



PINTXOAK
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK- BOKATAK- PLATER KONBINATUAK
AFARIAK ETA URTEBETETZEAK
ENKARGUZ

Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA



berezi

Hanburesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



BODEGUILLA BUTRON

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com



txakoli mota gane tx. txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierr-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com

Zure publia
hemen agertzea
gura baduzu

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz



KAI EDER JATETXEA

Menu ederra itsasoari begira

Tf. 94 677 41 33
Txurrua kalea zenbakirik gabe - PLENTZIA
www.restaurantekaieder.com



GOSARIAK PINTXOAK
KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)



GURE ETXEA taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Zure taberna edo jatetxea
hemen agertzea
gura baduzu
ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

Txipiroi amerikarrak

Tipulagaz eta saltsatan bustita



Saltsa amerikarra egitea da denbora gehien behar duena

Egun eguzkitsuetan hondartzara joan ohi da jendea. Kai Eder jatetxea Plentziako haretzaren ondoan dago, horrenbestez, leku ezinhobea horrelako egunetan lasai-lasai kostaldeari begira bazkalteko. Gaurkoan txipiroiak egindako plater azkar bezain gozoa prestatu digute Kai Eder jatetxeko sukaldariak, edozein etxetan egiteko modukoa.

Platera prestatzeko 10 minutu baino ez ditugu behar, saltsa amerikarra aldezturik prestatuta baldin badugu. Hori da denbora gehien behar duena, baina behin eginda, beste batzuetarako gorde ahal izango dugu. Saltsa egiteko otarrainxkak, buru eta guzti; askotariko barazkiak; tomateak; arrain-buruak; ogi zatiak; olioak eta gatza uretan 15 minutuz

sutan ipini beharko dugu. Ondoren, dena iragazi eta lortutako saltsa irabiagailutik pasako dugu, saltsa fin-fina lortu ahal izateko.

Saltsa prest dugula, tipula potxatuko dugu. Zati txikitik moztuko dugu, eta olio txorrotada batez, su txikian izango dugu 10 minutuz. Bitartean, txipiroiak plantzan egingo ditugu 6 edo 7 minutuz. Dana prest dagoenean, plater bat hartu eta txipiroiei ohea egingo diegu saltsa amerikarragaz. Gero, txipiroiak saltsaren gainean jarri eta guztiaren gainean potxatutako tipula jarriko dugu. Hala, prest izango dugu plater eder eta azkarra. ○

Osagaiak: otarrainxkak, askotariko barazkiak, tomateak, arrain-buruak, ogi-zatiak, gatza, olioak, ura, txipiroiak eta tipula.



Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T. 491 14 87 (sarriena, Jata Mendia) T. 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO



Croissanterie Briocherie

MONTE JAIA 1
48995 GETXO (BIZKAIA)
croissanterie-getxo.blogspot.com 94 460 86 48



JUAN-MARI
Harategia eta txarkuteria
ARTESANA

LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!
Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO



Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Libxarriak

Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

uk zure
publizitatea
hemen !

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)

Norbaitek lore-sorta eder bat oparituko dizu, baina ez duzu jakingo norena den. Ez da zure urtebetetzea, beraz, agian miresleren bat izango da. Ez urduritu...

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)

Idatzita ez dagoena, hitzak, haizeak eroaten ei ditu, eta zuk purrustada ederrak botatzen dituzu ahotik. Horietako azkenak, ordea, luze iraungo du lagunen buruan...

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)

Txikitan zenbat lepoko, koroa eta belarritako egin zenuten birxiloreakaz! Eder-eder ipintzen zineten lagunak eta zu, loreakaz apainduta. Zergatik ez duzue barriro probatzen?

META



(Irailak 17 urriak 16)

Txoriak miresten dituzu, aske dira gura duten tokira joateko, hegan. Zuk ere hegan egin gura zenuke: parapentean ibiltzeko txartela eros dezakezu, interneten ondo merke daude.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)

Supermerkatuetako eskaintzen mende bizi zara azken aldian: beti zabilza liburuxkak begiratzeko eta eskaintzarik onenen bila. Baina ez zara konturatzen despentsa gainezka daukazula?

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)

Eguzki premiaz zabilza, ezta? Nabari da, daborduko galza motzak erabiltzen hasi zara-eta. Adi ibili eta ez erlaxatu, oraindino botatzeko dago-eta sasoiako azken elurtea...

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)

Kristoren txirindula erosi zenuen, baina gelan gordeta daukazu, bazter batean lagata. Eguraldi ona hasi da, beraz, zergatik ez diozu hautsa kentzen eta kalera ateratzen? Eskertuko dizu!

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)

Negua joan dela dio kantuek, baina zure etxean sartuta jarraitzen du eta hotza kalera ezin ateratzeko. Baina zergatik ez duzue pizten berogailua? Burugorriak zarete gero!


ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)

Zahartzen hasita zaudelako obsesioak jota zimurren aurkako krema erosi duzu, baina igaro barri da zure urtebetetzea eta ezer berezirik ez duzu sumatu. Bada, egon lasai!

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)

Pozarren zabilza: udabarria iritsi da eta lorategiko barbakoa aste akabu guztietan erabiltzen ari zara. Primeran, baina lagunak eta senideak uda osoa izango dituzu etxean.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)

Ez dakizu lagunari zer oparitu? Aukera asko dago: egiozu artelan edo marrazki polit bat, ziur gustuko izango duela. Eta oso iaioa ez bazara, erosi urdiazpiko gozo bat; baietz asmatu!

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)

Gurasoak aireportura eroan beharko dituzu, nagusientzako bidaia horietako bat egin behar dutelako, nora eta Benidormera. Etxea zuretzat bakarrik aste biz: ondo baliatu aukera!

Zergatik da itsasoa gazia?



Zuk daukazulako goxotasun guztia!

Laura Siles, 2014

Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan




Uribe Kostako
aldizkariaren
ekoizpena



denborapasa

HITZ GURUTZATUAK



LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker-eskuma

1. Ipurdian hartutako kolpeak. 2. Txekiar Errepublikako hiria. Euskal Herriko karst eskualdea, Erronkari aldean. 3. Iodoaren ikur kimikoa. ... asko, mila esker. 4. Latz. Guztia. 5. Ezordua. Kanpo, landa. 6. Musika-nota, eskalan bigarrena. Iseka egile, iraintzaile, trufari. 7. Pluralean, edari alkoholduna. Haragia biltzen duen mintza. 8. Aho-legar. Eritasun kutsakor, legenar. 9. Atzarparkada. 10. Makurkeriak, egite okerrak.

Goitik behera

1. Ibiltzeko erak. Oxigenoaren ikur kimikoa. 2. Praseodimioaren ikur kimikoa. Azerikeriatan maisu diren basapiztiak. 3. Unean-..., momentuko. Ezkosari. 4. Ema-kume izena. Zirkonioaren ikur kimikoa. 5. Bostehun, zenbaki erromatarren arabera. Pluralean, itsas-ura, gesala. 6. Bilo. Oinaze, sufrikario. 7. Txarrantxak, artilea kardatzeko erabiltzen diren tresnak. Su. 8. Zuhaixka mota, ipuru. Azaldu, agertu. 9. Lasterka, korrika. 10. Beldurtia, izutia. Nor eta nork deklinabide kasuen atzizkia.

Soluzioa

I	P	U	R	D	I	K	O	A	K
B	R	N	O	L	A	R	R	A	
I	E	S	K	E	R	R	I	K	
L	A	K	A	R	D	E	N	A	
E	Z	O	R	E	N	A			A
R	E	I	S	E	K	A	R	I	
A	R	D	O	A	K		G	I	A
K	I	O		L	E	G	E	N	
A	T	Z	A	P	A	R	K	A	
O	K	E	R	K	E	R	I	A	K

ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Zein gai abiatu du
Zientzia atalak?

> Aurrekoaren erantzuna: Erandioko metro geltokia
> Irabazlea: **Uriz Moreno Ajuria**
*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA

Oinutsik
kontsulta podologikoa

Zubigane 4, SOPELANA. Tel: 94 404 74 20
oinutsik@euskalnet.net

*UK-ren zenbatgarren
zenbakia da hau?*

- 500.a
- 100.a
- 250.a

> Aurrekoaren erantzuna: Udabarria
> Irabazlea: **Laida Fuertes**
*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA

Atxagaren 'Astakiloen abenturak' ipuin bilduma



INIGO USTARAK UTZITAKO ARGAZKIA

GALEA FUTBOL-TALDEA, 1973 inguru

Galea futbol-taldea sortu (1971) eta gitxira, hastapeneko urte haietan, ateratako argazkia da goikoa. Non egindakoa den ezin igarri, baina Ustarak ondo akorduan daukanez, “orduko zelai danak lupetz-landak ziren!”. Erregionaleko bigarren mailan jokatzen zuen taldea da irudikoa, “batzuetan 14 agertzen ginen partidara, beste batzuetan 12 baino ez, aulkian aldaketarako jokalaririk barik jokatzen genuen”, Ustarak dioenez. Gaur egungo astegunetako entrenamendu-saiorik ia egin barik jokatzen zituzten asteburuetakako partidak, eta “halere, 5. edo 6. postuan lotzen ginen!”. Juan Pedro Guzman zen orduko presidente eta entrenatzaile, batzuetan jokalaririk ere bai; eta Vicente Otxoa (GB) zuten masaje-emaile zuri-gorriek. ○

Zutunik: ? Lopez Eguilaz, Alvaro Allende, Fito Ramirez-Escudero, Gonzalo Guzman, Ignacio Albizuri (GB) eta ? Nicolas.
Makurtuta: J. I. Uribarri, J. C. Garay, Pedro Aristegui (GB), Iñigo Ustara eta Asis Garteiz.

MATXALEN ZIARSOLO AREITIOAURTENA > Akaba Bera Bera taldeko kapitaina

“Uste duguna baino barkatzeko gaitasun handiagoa dugu”

Testua: **Iker Rincon** Argazkia: **Matxalen Ziarsolo**



Defini egizu zeure burua berba bitan.
Aktiboa eta soziala.

Zure hautzaroko oroitzapen bat?
Familiarekin kanpinera joaten nintzenekoa.

Badaukazu ohitura txarren bat?
Dena azkarregi bukatu nahi izatea.

Eta aitor dezakezun bizio bat?
Garagardoa.

Zer barik ezin zaitezke bizi?
Pertsona barik nire inguruan.

Barriz egingo zenukeen bidaiarik badago?
Indonesiako Bali irlara, baina errepikatzeak pena emango lidake, ezagutu nahi ditudan hainbeste leku daude...

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?
Zaila da sekula esatea. Egoera eta pertsonaren arabera pentsatzen duguna baino barkatzeko gaitasun handiagoa dugu.

Eguna ala gaua? Zergatik?
Gaualde eta ilunabarra, lasaitasuna transmititzen dutelako.

Miresten duzun historiako pertsonaiaren bat?
Dolores Ibarruri, emakumea eta librea izatea zaila zen garaian, gure eskubideen alde borrokatu zuelako.

Euskal Herriko zure txoko kutuna? Zergatik?
Anboto ingurua eta Zarautzeko hondartza itsasoa indartsu dabilenetan.

Gorrito duzun topikoa?
Jokalari ona, pertsona hobea.

Zein barri gura zenuke irakurri biharko egunkarian?
Illunben jokatu den Bera Berako partidarako sarrerak agortuta daudela. ○

LABURREAN—Matxalen Ziarsolo (Ermua, 1982) Akaba Bera Bera eskubaloi taldeko kapitaina da. Joan den mar-
txoaren 16an Espainiako Kopa altxatu zuen bere taldeagaz batera, Kanaria Handiko Rocasaren aurka Alcobendasen
(Madril) jokatuak finala irabazi eta gero. Ziarsolo 2001ean estreinatu zen eskubaloiko eremu profesionalean, eta
ordutik, 11 aldiz internazionala izan da, Liga bat eskuratu du eta Espainiako lau Kopa irabazi ditu, besteak beste.

beharsarea.net

Uribe Kostan lana euskaraz

Aste Santuan umeak zaintzeko euskaraz dakien norbait behar duzu?

Zure dendan edo tabernan euskaraz dakien norbait behar duzu?

Hementxe duzu BEHARSAREA.net

info +:

Behars@rea Bizkaia: www.beharsarea.net
Behars@rea Erandio: www.beharsarea.net/Erandio/
Behars@rea Leioa: www.beharsarea.net/Leioa/
Behars@rea Getxo: www.beharsarea.net/Getxo/

Gidabaimena euskaraz!

2013ko

SARIAK!



Lander San Vicente

Julen Lamberto

Ane Ramos



ERANDIO

i-Pad bat

GETXO

asteburuko egonaldia

LEIOA

100 €ko errregai-txartela

eta
diplomak



GDB euskaraz kanpaina Erandioko, Getxoko, Leioako eta Uribe Kostako Mankomunitateko udaletan jarri da martxan, herrietako autoeskolen laguntzarekin. 2013an, herri horietako 49 gaztek gainditu zuten proba euskaraz.

Hurrengoan... zeuk!



URIBEKOSTAKO
MANCOMUNIDAD DE SERVICIOS
ZERBITZU MANKOMUNITATEA
BARRIKA - BERANGO - GORLIZ - LEIOA - PLENTZIA - SOPELANA - URULLU

